


AGUSTIN CARDABERAZ, S. I.

**EUSKERABEN
BERRI ONAK**



AUSPOA LIBURUTEGIA

EUSKERAREN BERRI ONAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

37

COLECCION AUSPOA


Administración:: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 240 pezeta Atzerrian: 325 pezeta
Ongilleak: 400 " Ale bakarra: 30 "

AGUSTIN CARDABERAZ, S. I.

EUSKERAREN BERRI ONAK



AUSPOA LIBURUTEGIA
1964

Depósito Legal S. S. 735/64

Número Registro 4096/64

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17331
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

A R K I B I D E A

A. AGUSTIN CARDABERAZ (Aita Agustin Cardaberaz Jainkoaren serbitzari andiaren BERRI LABURRAK apaiz batec euskeraz jarririk)	9
Itz aurea	11
I: Bere jaiotza ta erlijioan sartu zan arteraño-ko biziera	14
II: Aita Agustiñen ikaskizunak, eta erlijioso nola egin zan	19
III: Bere Nobiziadua	21
IV: Sazerdote egin eta gerozko lan santuak	27
V: Loiolan egin zuan bizi erretiratua	37
VI: Jesusen Biotzaren Agerkerak	42
VII: Beste jesuitakin batera Españiatik deserri- tua ateratzen da	47
VIII: Castel San Giovanni-ko errian egin zuan bi- ziera, aizkenengo gaixotasuna eta erio- tza	51

EUSKERAREN BERRI ONAK

Irakurleari Berri Onak	57
I: Beste izkundeen aldean euskara	60
II: Euskeraren izkerak edo dialektoak	66
III: Ondo itzegiteko ta eskribitzeko molde edo Artea	70
IV: Ondo eskribitzeko erreglak	76
V: Ondo itzegiteko beste erreglak	84
VI: Euskeraren Arte edo Gramatika	88
VII: Euskerazko Gramatikaren erregaliak	93
VIII: Euskerazko Erretorika nola dan	100
IX: Kristau Dotrinaren Erretorika	110

†
IHS

Aita Agustin Cardaberaz

Jaincoaren serbitzari andiaren

BERRI LABURRAC

APAIZ BATEC
eusqueraz jarriac

DURANGO-N

Florentino Elosu-ren echean

1908-GARREN URTIAN.

(Aurretik Aita Cardaberaz-en bizitza jarri degu, liburu txiki batek daka rrenez. Onelaxe da liburutxo orren lenengo orrialdia).

Lenengo argitaraldia: "Durango-n Florentino Elosu-ren echean, 1908-garren urtian".

Bigarren argitaraldia: Auspoa, 37 (1964).

ITZAURREA

Kardaberaz Agustin Aita Jesuita, Ernani-ko seme argi, Euskal-Erriaren onore, Jesusen Lagundiko goraldi eta Jesusen Biotz Jainkozkoaren Apostolo txit zelotsua 1770-eko Urrillaren 18-an Castel San Giowani deritzan Italiko errian santuki ill zan, 66 urte zituanean.

Bere gorputza erri artako Eliz Nagusian, apaizentzat siñalatua zegoan illobian gorde zuten; baña nola an bizi izan zan iru urteetan bere santutasunezko omena asko zabaldu zalako noski, 1794-ko Otsaillaren 20-an agintedun Juezak agiriko aitormen bat ogin eta gero, Eliz bertako San Franzisko Jabierren Kapillara aldatu zuten, Ebanjelioko aldean lurra ematen ziotela.

Aldi artan agintedunak egin zuten izkribuak ala dio; eta izkribu ori gaur ere Parroki artako Artxi-boan gorderik arkitzen da. Bertako apaiz nagusi Felipe Tabellini jaunak, 1906-ko Mayatzaren 21-ean Mariano Maiza, Ermaniko apaiz jaunari egin zion eskutitz batean era ortan aditzeratu zion.

Jainkoaren serbitzari andi, eta gizon argirotar onen gorputz kondar begiramengarriak non arkitzen ziran, erabide oiezaz jakin genduan. Gueroztik arretazko zenbait alegin eginda, erliki oien jabe Euskaldunak nola egin bai diran, Gipuzkoako probintziak bere naieran laister idukiko ditu, Loyolako etxe santuan gordetzea erabakia dagota. Ori gauz egolia derizkiogu; bada Jainkozko guizon onek, lurrean bizi izan zan bitartean, Loyolako etxe santuari naitasun berezia izan zion, eta ogeitamar urtean, auda, bere bizitzaren parterik onen eta andienezan bizitokia Loyolan izan zuan; eta bere birtute bikañen, eta animen salbaziorako egin oi zituan lan andien, eta Jesusen Biotz Jainkozkoak egin oi zizkion agerimen eta beste mesede miragarrien testigu ikuslari bezela Loyolako etxe santua izan zitzaion; eta orregatik beraren gorputz kondar edo erliki beneragarriak Loyolan bertan atsedenezko tokia idukitzea, gauza justua derizkiogu.

Ermani da bere jaioterria, eta orregatik eskuiko besoko ezurrak ango Parrokian gordeko dira. Ermaniko Erri-Batzarrak eta Loyolako Zuzendari jaunak alkar adituta, orrela erabaki dute.

Zeruko Ondasuntegi bat bezela kondar beneragarri oiek maite izan bear ditugu; eta gure probintziako gizon andi, argi eta Jainkozko onen zerbait ezauguera euskaldunak izan dezaten, bere bizitzako berri labur abek emen izkribatu ditugu.

* * *

Liburu ontan jartzen diran Aita Kardaberaz eta beste oraindik Eleiz Ama Santuak beatificatu edo

kanonizatu ez dituan Jainkoaren serbitzarien santutasun, milagro, ikusmen edo agermenak, ez dutela, gizarteko kondairak oi duan balio ta indarra baizik; eta guztian Eleiz Ama Santuaren epai ta aginduetara osoro menderatu nai degula, bere magal gozoan bizi ta ill nai degulako.

Guzti guztia Jainkoaren onra ta goraldirako ta animen betico salbaziorako izan bedi.

Aita Agustin Cardaberaz

Jainkoaren serbitzari andiaren bizitzako BERRI LABURRAK

I

BERE JAIOTZA TA ERLIJOAN SARTU ZAN ARTERAÑO KO BIZIERA

Aita Agustin Kardaberaz Gipuzkoako Emanin jaio zan, 1703-garren urteko Abenduaren 28-an eta bigaramonean bataiatua izan zan. Eleizako Erakusle San Agustin gloriosoak dio, aur jaio berriak negar egin oi dutela, malkozko ibar onetan igaro bearko dituzten atsekabeen igarle izaten dirala; baña Kardaberaz aurrak etzuen negarrik egin, adierazitzeko noski, etzeturrela mundura zorigaitzerako; baizik bere ta bere erriaren zorionerako; orregatik, badirudi, zeruko argiz itzegin zuala bere aita pontekoak esan zuanean: "Illa dirudien aur onek miragarritzko gauzak egingo ditu." Bere aitari biotzean josirik itz oiek geratu zitzaizkion, eta andik urte askotara Aita Agus-

tiñek mixioetan egiten zituan frutu ugaritsu ta miragarrien berri jakitean, gogoratzen zituan.

Gure Agustin jaio ta laister, onen guraso ta famili guztia Donostiara bizi izatera joan ziran, eta omen, batez ere bere amak aziera txit ona ematen zion, biotz xamur artan ereñiaz Jainko Jesusen eta Ama Birjiñaganako naitasun, erreberentzi ta konfiantza, alako eran, non, mutill gaztetxoa zalarik, bere birtute ta debozioa zala bide, gizon andi, prestu ta prudentea bezela agertzen zan.

Gozotasunezko bendizioakin Jainkoak lenaz pres-tatu zuan, eta umeak oi dituzten arinkeri ta peli-gioetatik apartaturik, bakartasunera ta deboziozko ta errukitasunezko lan onak egitera zeruko graziak eramaten zuan.

Jesuitak Donostian zeukaten kolejoan Gramatika arreta andiarekin ikasi zuan, eta eskolatik ateratzen zanean, bere jolasik pozkarriena elizak eta Ama Birjiñaren imajiñak bisitatzea izaten zuan, eta etxera erretiratzean, bere ama ta arrebai errezo ta debozioetan laguntzea izan oi zuan bere atsegiñik gozoena. Gai onetan famili guztiak ematen zion ejemplo ederrak santutasunezko bidean txit asko lagundu zion. Urte askoz gero, arreba batek, Agustin bere anaiaren aurtasunez oroitzean, esaten zuan: "O gure Agustin, gure Agustin, txiki-txikitatik santua da." Eta ala agiaz, etzirudien mundu onetarako jaioa; baik zerutik jatxitako aingeru bat; ain zan manso, umill, gozo ta eraman andikoa, ta guztientzat maitagarria; ta ain garbitasunezko modestia beragan agertzen zan, non begiratzen zioten guztiak garbitasunera mugitzen zituan.

Amabi urte zituanean, bere adiskidetasun barren-
-barreneko ta kutunera Jainkoak deitu zion, eta le-
nago baño bakartasun geiago gorde, ta liburu san-
tuen irakurtze geiago egiten zituan. Munduko gauza
guztiak iguia ta nazka ematen zioten. Bakarrik Jain-
koagan biotzaren atsedena arkitzen zuan. Gelan Jain-
koakin otoitzean egotea zan beretzat atsegiñik an-
diena. Ikazkizun eta lezioak bukatuez gero, debo-
zizko gauzetara oso entregatzen zan, Jesusen Pasio
Santua gogoratuaz, eta sarri bere biotzean ibilliaz;
eta eskutitz baten Agustiñek berak dio: pozkidarik
b:kañena gai onetan arkitzen zuala. Baita ere gogoz-
ko orazioan maiz erabili oi zituan gizonaren aizke-
nak: Eriotza, Aizken-epaia, Ipernua ta Zerua.

Lenbizikoan otoitz oietan bere adimentuko arreta
zerbait zabartzen zitzaion; ordea Gonzagako Luis
Santuaren antzera, zabartasun oiek garaitzeko bere
buruari ainbeste indar egin zion, non, idurimen edo
imajinazioa poliki-poliki oso menpetu zuan, eta be-
re naierara lotua idukitzea gutxi kostatzen zitzaion,
eta bere orazioaren morroi eta laguntzalle umill iza-
tea iritxi zuan. Era ontan Espiritu Santuaren argita-
suna bere alde zualarik, birtute andietara eldu zan.

Amairu urte zituanean, Kastidadearen usai gozoa
bere animan sentitu zuan, eta birtute eder au bere
biotzaren jabe egin zan. Jainko andiari orazio luze
ta irazekiakin lenaz argitasuna eta grazia eskaturik
oso ta betiko Bere serbitsu santura konsagratu ta en-
tregatzea erabaki zuan, gauza guztietan Jainkoaren
naia beti-beti egiteko; ta asmo au obeki ta osoro be-
tetzeko, Jainko Beraren eta Ama Birjiñaren onra ta
goraldirako zeruko erregin onen iduri baten aurrean

bere bizi guztian Kastidadea gordetzeko botoa egin zuan. Laister ordaindu zion Ama Birjiñak bere seme maitati onen sakrifizioa. Ama maitagarri zeruko Erregin au agertu zitzaion esaten ziola, berak anparatuko zuala, ta erlijioso egin zedilla. Aita Agustiñek berak, bere eskuz izkribatu zuan karta batean onela dio: "Aldi ontan, amairu edo amalau urte nituanean, oi ez bezelako zeruko erregaliak artu nituan. eta nere anima gozamenez urturik, miragarrizko eran Birjiña txit ederra agertu, eta txit eztiro itzegin zidan; baña etziran gorputzeko itzak, baizik espirituzkoak, eta erlijioso izatera deitu zidan, aditzera emanaz, erlijioan nere animak atsedena arkituko zuala, ta Jainkoa ofenditzeko peligroetatik libratu, ta penitentzia egiteko, ta biziera santuago batean bizitzeko nituan deseoa, beteko zitzaizkidala".

Zeruko bisita onekin Agustin mutiltxoa pozez gañezturik geratu zan; aldi artan ordea, gerta zitzaionik, etzion iñori agertu, bakarrik amari jesuita izateko deseoa azaldu zion, izan zuan zeruko ikusmenik aitatu gabe. Ordotik, jesuita balitz bezela, bere etxean bizitzeko asmoa artu zuan. Liburuetan irakurria zeukan, orazio, penitentzi ta sacramentuak maiz artuta, Kastidadearen joia preziosoa seguru gordetzen zala, ta egiñalean oietan saiatzen zan. Gerriko aragien gañean, beste ziliziorik etzeukalako, burnizko kate batekin estutu zan, eta ainbesterañokoa zan gai orretan zeukan naitasuna, ezen, sei illabete segitukoetan burnizko kate ori bere gorputzean iduki zuan, eta etxeokoak ezagaturik, ken erazi zioten, eta ordotik bere gorputz kulpa gabea ezi, ta ilduratzeko, beste erabide ixillagoak billatu bear izan zituan. Pillare baten gure amorez azota-

tua izan zan Jaunaren onran, etxeko tokirik ezkutue-
netan gorderik, bere gorputza gogorki azotatzen zuan.
Ostiral eta lanbatetan barautzen zan, iñor igarri gabe
ordea; bakarrik amak. Agustin berak dionez, ezagu-
tu, ta erakutsi onakin gai onetan laguntzen zion. Le-
nen aldian illero komulgatzen zan, gero amabostean
bein, geroago, konfesoreak ezaguturik bere garbita-
sun eta gaitzgabetasuna, ta janari zeruko, ta indar-
tsuen ogi Jainkozko onetatik ateratzen zituan pro-
betxu andiak, zortzian bein, eta astean bi edo iru
aldiz Jauna artu zezala kontsejatu zuan, munduaga-
nako begiramenkeri guztiak orretarako azpiratzen zi-
tuala.

II

AITA AGUSTIÑEN IKASKIZUNAK, ETA ERLIJOSO NOLA EGIN ZAN

Deboziazko jarduera oiek etziran eragozpen bere ikaskizun edo estudioak jarraitzeko; baizik kontrara geiago ikasteko laguntzen zioten. Mugonez Donostian Gramatika bucaturik, Filosofia ikastera Panplonara biraldu zuten, eta andik berriz Valladolid-ko Eskola Nagusira, letradu egiteko legeak ikastera. Orrelako erri andietan gazteak, gurasoen begiramen gabe, oitura onak galdu, ta gaiztoak artzeko, peligro andiak igarotzen dituzte; baña gure gazte onek zeruko laguntzarekin Panplonan bezela Valladolid-en ere birtute guztien ispillu eder izaten jarraitu zuan. Valladolid-en Aita Franzisko Alvarado, Jesusen Lagundiko espiritu andiko gizona bere konfessore ta zuzendaritzat artu zuan. Aita onek txit egoki zuzendū zuan gure ikasle onen biziera: bere duda ta zalantzak argitu: bildur eta larritasunak paziatu eta miragarritzko orazioaren bidean jakinduri ta era onez giatu zuan; bada aldi artan Agustiñen orazioa bikaña zan. Bizi guztiko konfesioa Aita orrekin egin zu-

an, bekataririk andiena balitz bezela, damutasuna-
ren puruz negar ugariak egiten zituala. Bere umil-
tasunean bekatari andia zala iduritzen zitzaion; ba-
ña bekatu larririk ez ezik, ezaguerazko bekatu ari-
ñik ere etzan beragan arkitzen; eta orregatik, agiri-
ko gauza da, kulpa gabeko gazte argan ain damu-
tasun samiña ikustean, zein mirestua geratuko zan
Aita Alvarado! Aita Agustiñek egun onen aipamena
bere eskutitz batean egiten du, esanaz onela: “Kon-
tzezio txit garbiaren eguna izan zan eta Ama Birji-
ñaren eta onen Seme Jainkoaren onran lenago egi-
ña neukan Kastidadeko botoa orduan berriztatu
nuan, Jesusen Konpañian sartzeko azkenengo eraba-
ki firmea artzen nuala, baldin toki egiten bazida-
ten”. Oraindik ordea zortzi illabetez luzatu zuan be-
re sarrera, uste degunez, bere umiltasunean diña etza-
la iduritzen zitzaiolako.

Bitartean, emezortzi urte zituan arteraño biziera
ixill, erretiratu, penitentzizko ta garbia egiten jarrai-
tu zuan, gizona baño aingerua zirudiela. Vallado-
lid-en bertan, San Inazioaren Kolejioan Jesusen Kon-
pañian sartzeko eskaria egin zuan, eta ango aita je-
suiten baimen eta atsegiñ andiz arrera eman zioten
1721-garren urteko Abuztuaren 20-an San Bernar-
doren egunean; eta motibo onegatik santu andi oni
bizi guztian jaiera berezia gorde izan zion.

III

BERE NOBIZIADUA

Mundutik birtutez ain ongi ornitua zetorren gazte onek, jakiña da, nolako poz eta gozamenak artuko zituan, Villagarcía-ko Nobiziaduko loretegi artara eldu zanean; bada ainbeste deseatzten zituan debozio, batutasun eta penitentziak egiteko era egoiak an arkitu zituan. Bere lagun nobizioai beste ainbeste aingeru balira bezela, begiratzen zien, eta aien artera ekartzearekin Jainkoak egin zion mesede bereziaz arriturik zegoan; bazekien ordea, guztia Ama Birjiñaren bitartekotasunari zor ziola; bada Señora onek agindu bezela, guztia gertatzen zitzaion, eta uste osoa zeukan, Andre Mari beragandik leialtasun aizkenerañoako iraupen sendoa iritxiko zitzuala. Benazko nobizio santua izan zedin, zortzi eguneko ejerzizioak egin ondorean, Aita Juan Loiola-koari konzientzi guztiaren kontua eman zion, eta ordutik eriotzara arteko gidari eta zuzendaritzat Aita ori aukeratu zuan; eta ala gertatu zala, ezagutzen da; bada erakasle ta ikasle biak bizi guztian itzez eta eskutitez alkar adituaz, biotzeko adiskidetasun

santua beti iduki izan zuten. Aita Loiolak laister eza-gutu zuan, bere ikasle gaztearen animan zeuden santutasunezko zimenduak, eta Jesusen Lagundirako erazko santu andi baten gaia bere eskuetan zeukala; eta orregatik eremaitz ugariak itxaroten zituan landare gaztea landatu ta ongarritzen, eguiñalean saiatu zan.

Gure jesuita berriak txit ona izateko alegiñak egi-ten zituan, eta Aita San Inaziok jarritako erreglak zearo gordetzen saiatzen zan, abek erakusten duten santutasuna iristeko. Obedientziaren bide laburretik ekin zion, bada birtute ori da guztiaz lenen San Inaziok gomendatzen duana. Orazio asko iduki, ta penitentzi gogorrek egitea biziro deseaten zuan, San Luis Gonzagaren antzera, zenbat eta gogorrago, ainbat eta naiago. Baña beti zuzendari nagusiari adit-zeraz emanaz, zer penitentzi egin nai zituan, guzti guztian onek agintzen zionera egokituaz. Barau, di-ziplina, zilizio ta beste penitentzi gogorretan etzan gutxi bere naitasunari uzten zitzaiona; onetan ordea, beste gai guzietan bezela anai Agustin izpirik ere etzan ateratzen Obedientziak uzten edo agintzen zion bide ta neurri zuzenetik.

Bide zuzen onetatik zijoala, amargarren illabetean, ekaitz gogor batekin Jainkoak probatu nai izan zuan, eta beste bat izan bazan noski ekaitz orrek be-tiko ondatuko zuan. Aideen batzuek aserretu ziran Jesusen Konpañian sartu zalako, ta zioten, ori egin zuala, gazteak oi duten bezela, arinkeriz eta ongi pentsatu gabe, ta Nuncio Jaunagandik agindua lo-graturik, Nobiziadutik atera zuten. Agindu orren bi-dez Valladolid-era biralerazi, ta San Franzisko andia

deitzen zitzaion konbentu txit erlijiozkoan jarri zuten, izendaturik zegoan juez batek bokazioa esamiñatu zezaion, gure Agustiñek aukera osoarekin naitzuan erabakia artu zezan. Gazte onentzat gertaera au mingarria izan zitzaion; baña beste aldetik erlijioso aiek pozgarri izan zitzaizkion; bada ikusirik gazte onen Modesti, Batutasun eta Obedientzi guztizkoa, guztien biotzak irabazi, eta Prudentzi, Zelo ta Maitetasunaz tratatu zuten; eta bera ere bizi guztian esker onekoa izan zitzaien.

Esamiña onek egunen batzuek iraun zituan. Gure Agustin arriturik zegoan, aideak Nobiziadutik bera ateratzea naitzuan zutela pentsatzean, izanik bereztat jesuita sartzea Jainkoari zor zion mesederik aundiena. Beti gauza bat juezari erantzuten zion: "Jesusen Konpañiara Jainkoak deitu dit, eta dei oni jarraitzea da nere erabaki ta asmo bakarra." Juezak laister ezagutu zuan aren bokazioa egizkoa zala; baña ala ta guztiz ere epaia ematea luzatu zuan.

Onetan San Luis Gonzaga, anai Agustiñen godartari ta bitarteko bereziaren eguna eldu zan, eta santu oni erregu luze ta irazekiak egiñaz, eskatu zion, lagun zetzaiola, ta bere Nobiziaduko kabi gozora lenbaitlen biur zezala. Egun orretan Aita Guardianari benaz eskatu zion, Komunio Santua artzeko baimeña, ta onek oparo eman zion, eta egun orretan bertan juezak aizken epaia eman zuan, aditzeratuaz Agustiñen bokazioa egizkoa zala. Esker onak emanik Aita Guardian eta beste erlijiosoai egun ortan San Inazioaren Kolejiara eramane zuten, eta bigaramonean, Villagarcía-ko Nobiziadura. Nobizioak pozezko arrera andia egin zioten, eta are ta geiago pozez beren artean artu zuten; zergatik illabete baizik etzan, bes-

te lagun batek, Agustin bezela Nobiziadutik irtenaz gero, jesuiten sotana utzi zuala.

Ekaitz eta probantza gogor oiek igaroez gero, ar-
teraño ezer egin ez balu bezela, berriro Jainkoaren
serbitzuari ekin zion. Ezin adierazi liteke nolako go-
go ta ansi irazekiaz biotz berri bat eta anima berri
bat Jainkoari eskatzen zizkion. Aita San Inazioaren
erreglaen erretrato bizi bat zirudien. Bere begietan
Modesti bikaña agertzen zan, kasik beti lurrera be-
gira zeramatziala. Bere ezpañak itz alperrik esaten
etzuten, ixiltasun txit egokia goardatzen zutela. Bere
persona guztian alako alaitasun eta apaltasun gozoa
ikusten zan; eta bere gorputzeko ibillera ta mu-
giera ain aingeruzkoak ziran ezen, guztien biotzak
irabazi ta Jainkoagana eramaten zituan. Egizko bir-
tute sendoen jabe egitera bere arreta ta gogoeta guz-
tiak zuzentzen zituan. Lurrekoa zan zale guztia bio-
tzetik kendu: bere buruaren maitekeri ta pentsa-
mentu berekoiak sustraitik atera; griña txar eta za-
le eragabeko guztiak bizi ilduratu ta ezi, Jainkoar-
en naitasunera danak menperatuaz; orregatik egin-
kizunik bajoenak, neketsuenak eta umillenak agin-
tzen bazizkieten ere, poz-pezik egiten zituan, bere
barrenean ongi sinisturik zegoalako guztietan txarre-
na ta ezerezena bera zala, ta etxeko gauzik txarre-
nak beretzat izan bear zutela. Bere buruaren eza-
guera ta umiltasunean ain sendoki zimendatua ze-
goen ezen, sekulan bururatu ere ezitzaion, zerbai-
tean besteak baño geiago izan zitekean iritzirik; ala-
ko eran non, beste askoren ondamendia izan oi diran
soberbi edo andikerizko tentazioai gogor egiteko pre-
mirik iñoiz ere etzuan izan. Jainkoak orazioan erre-
gali ta zeruko gozamen andiak biraltzen zizkan; ba-

ña umiltasun bikañaz Jaunari esaten zion oien diña etzala, ta kendu ta eman zekizkiola berak baño obek i serbitzen zutenai. Erregu au Jaunak aditu zion, eta aurrerakoan gozamen zeruko oiek gutxitu zitzaizkion, ixuririk ordea Jaunak bere biotzean beti pake ta gozotasun oparoa. Jesuita onen gauzik bereziena izan zala, dirudi, Jainkoak egiten zizkion erregali zerukoak beti gorderik idukitzeko alegiñak egitea, ta bere birtute bikain biotz barrenekoak gizonen begietara etzitezela azaldu; ta Jaunagandik iritxi zuan, bizi izan zan arte guztian, zerutik artu izan zituan mesede berezi ta erregali oien berri oso gutxi jakitea. Guztiak zeukaten bai gizon santutzat; baña nola gizartean beste edozein bezela agertzen zan ain santu andia izan zitekenik, iñork ezin pentsa zezakean. Egiz esan diteke San Luis Gonzagaren iduri bizi bat izan zala; San Luisek bezela etengabeko orazioan Jainkoa beti gogoan zerabilen; idurimen edo imajinazioa guztiro eskuratua zeukan: aingeruzko garbitasuna gorputz eta animan osokorde zuan: zeruko Erregiñ berak Jesusen Konpañiara deitua izateko zorion berezia izan zuan: barau ta penitentzi gogorak egiten zituan; malkozko doia Jaunak eman zion; eta Aldareko Sakramentu txit Santuari ta Salbatzalle txit maitagarriaren Biotz txit Sagraduari Naitasun gozo, bigun, maitetsua beti izan zion, mesede ta gozamen zeruko pozkarri andien iturri ugaria izaten zitzaiola. Berberak dio: aurtasunetik Jesusen Biotzaren Debozioak fede gozoarekin deitu ziola, ta erlijioso egin baño lenago ere, munduan bizi zanean, Jesusgandik ezin apartatu izater zala; batez ere Sakramentu Santuan agirian zegoanean. Era ontan jarduera santu, bakartasun ixill,

penitentzi ta deseo biziakin ongi prestaturik, Jesus-en Konpañiako ama amodiotsuaren magal gozoan iru botoakin Jainkoari oso ta betiko entregatu ta kon-sagratu zan, 1723-garren urteko Abuztuaren 21-an. Agustiñek berak dio: "Botoak egin nituan egune-an, nere biotza bere naikunde guztiakin Jainkoari oso ta betiko eskañi nion, agintzen niola, Jainko be-raz kanpora ez niola ezertxori ere nere biotzean to-kirik emango, erabaki sendoa artzen nuala, iltzea neré Jauna kulparik edo ezaguerazko utsunerik txi-kienarekin ofenditu baño lenago; deseetzen nuala, egitea Jaunari, eskañirik oso, garbi ta beti-betikoa Jaun berarentzat guizartean atsegingarrien izan zite-kena".

IV

SAZERDOTE EGIN ETA GEROZKO LAN SANTUAK

1729-garren urteko Abenduan, Valladolid-ko Obispo jaunak ordena sagraduak eman zizkion, eta urrengo urteko lenengo egunean debozio bikaiñ miragarriaz Meza Berria esan zuan. Bilbon eta Pannonan urteren batzuetan gazteen erakasle izan zan, eta osasun makalekoa zalako, jesuitak zeukaten Azkoitiko etxera biraldu zuten, an eta inguruetan Jainkoaren itza zabaldu zezan. Geroz Oñatin aldi baten bizi izan zan, eta 1736-garren urtean Loiolako etxe santura joan zedilla, agindu zioten, eta bizileku au izan zan beretzat zorioneko kabi gozo baten antzera; bada bertan San Inazio Aitalen andiaren ondoan balegoke bezela, bere biotza Jainkoaren eta lagunaren Karidade irazekian are ta geiago sutu zuan.

Aita Agustiñek urte ortan izkribatu zuan karta baten dio: bigaramonean Aita Probintzialaren aginduz, Elgoibar-ko errira joan bear zuala, ango persona printzipalak, premizko eginkizunen batzuek zuzen-

tzera deitzen ziotelako. Urte ortatik 1755-garren urtera arte, ogei urtean, or nonbait, Gipuzkoa, Bizkay ta Arabako erri asko, ta Naparroako ez gutxi, Mixioak predikatzen korritu zituan; eta askoren iritzian, ori milagro luze ta arrigarria izan zan; bada aiñ makal, eta osasun gutxikoa izanik, milagroz izar ezik, badirudi, ainbeste arreta, arazo, lan eta nek ezin eraman zitzakeala. Nork adierazi zenbat Mixio ta zein probetxu andikoak predikatu zituan Gipuzkoako ta Bizkaiko kasik erri guztietan?

Lan oietakoren batzuetan lagundu zionak Aita Inazio Arizagak dio, zierto zekizkianak irurogeitik gora zirala.

Erriz erri predikatzen asi zanetik jendetza talde andiak jarraitzen zioten, eta elizetan kabitu eziñik, zelai edo plaza zabaletan bere itzaldiak egin bea izaten zituan. Bera ikustea naikoa zan, pekatuen damu ta penitentzira jendeak mugitzeko; bada padezitzen zituan eritasunak, eta zeramakien penitentzizko bizitza zala bide, azal eta ezur-uts biurtua zegoan, eta batez ere Jainkoaren onragatik zelo sugartsuak, eta animak salbatzeko sentitzen zuan egarri biziak bere biotz eta errai guztiak urturik zeuzkala zirudien.

Zenbat eta gutxigotzat eta escasagotzat zeukan bere burua lan santu oietarako, ainbat eta uste osoa Jainkoagana jartzen zuan; eta segurutzat zeukan, Jainkoak bere itzari indarra emango ziola, biotz guztiak Jainko Beragana biurtu zitezen.

Santu bati bezela jendeak begiratzen zioten, eta toki urrutietatik bere sermoiak entzutera etortzen ziran, neke oiek pozik eramaten zituztela.

Bere itzaldiak Jainkoaren amodio ta biguntasunezkoak izan oi ziran geienetan; euskaldun prestuen biotzak era ortan obeki mugituko zituala pentsaturik noski; edo ta bere biotz xamur maitetsua mugida oiekin beterik eta gañezturik zegoalako.

Gaiztakeriaren kontra itz egiten zuanean, arrazoi sendo ta argiak egiten zuan; pekatuaren itsuskeria adierazirik, eta gaitzbide edo eskandaloak animetan egiten zituan kalteak; eta famili ta erri guztietara ekartzen zituan ondamendi negargarriak; eta guztiaz gañ, Jainko andiari egiten zitzaion ofensa, burla, desprezio ta urruinqueria. Bere biotza Jainkoaren amodioan suturik nola baitzegoan, ikusirik bere Jabe maitagarriaren Ontasun neurrigabea pekatuakin desonratua, aren Izen Santua atzendua, ta Jesukristoren Odol preziosoa ostikopetua; penaren penaz, eta atsekabearen indarrez, biotzak ori ezin eramanik, guztia urratu, lertu ta desegiten zitzaion; baña ala ta guztiz ere, pekatariari onginaiz zion, ta ama batek bere umeari bezela, maitetasunez deitzen zion esanaz: "Eritzen bazaitut, osasuna emateko eritzen zaitut, utzi zazu lenbaitlen pekatua, ta penitentzi egizko batekin, etorri zaite, barkazioa eskaintzen besoak zabalik dagokizun Jaunagana". Batez ere, Gurutze Santua arturik, damutasun eta kontriziozko itzak esaten, abiatzen zanean, Jainkoaren amodioan bere biotza sututzen zan, eta ikusirik gizonak Jaunari egiten zizkieten bidegabe ta txarkeriak, ematen zion negarrari, eztarrian gorapillo bat egiten zitzaion, eta zotinka mututurik gelditzen zan; baña predikariaren itza bukatzen zanean, itz eginta bañon obeki, jendeak aditzen zion, eta guztiak petxoak golpetuaz,

biotzak damutasunez ausirik, deadar egiten zuten: Misericordia, Jauna, Misericordia.

Entzuleen biotzak era ortan mugitzen zituan, bere biotz eta anima guztia, eternidadeko egi santu oiek ongi mediatu, ta barren-barreneraño oien ezageraz, betea ta aseaz bezela zegoelako; ta biotzeko ugaritasunaz zelo biziakin mintzaturik, Jainko Errukitsuak, bai predikariaren, bai entzuleen gañera zeruko grazi ta argitasun andiak biraltzen zitualako. Bekatariaren eriotzaz, eta onek orduan izango zuan larritasun ta desesperazioaz itz egitean, esanaz, ordu ura etorri ezkeru, etzegoala geiago betarik Jainkoagana biurtzeko; adieraztean, zein zorrotz eta zuzena izango dan Jainko Juezaren aurrean bakoitzak eman bearko duan kontu zearoa; ta zein ikaragarria izango dan pekatariaren egoera, amatu ta serbitu bearrean, ainbeste aldiz, eta ainbeste eskergabekezi ofenditu ta despreziatu zuan bere Egillearen aurrean, aizken epai betiraundikoa aditu ta kunplitzeko; aditzea berari batez ere ain argiro ta biotz irazekiaz itz egiten, sekulan akabatuko ez diran millaka ta millaka eternidadeko urte aiezaz, arriturik, bildurturik ta ikaraturik guztiak penitentzia egitera mugitzen ziran.

Ain zoli ta zorrotz zelo santuan suturik, pulpitian itz egin, eta pekatariak Jainkoagana mugitzen bazituan, konfesonarioan jarririk bere lan santua bete ta osatzen zuan; pekatari gaixoen animako eritasunac prudentzi, jakinduri ta somakera zerukoaz an osoro sendatzen zituan. An zegoan aita maitati ta mediku jakintsu baten antzera; aztu gabe ordea, juez zuzena izan bear zuala. Bere gaztigoen gozotasuna ta bere arrazoi ta erabakien sendotasuna ain zan an-

dia, bekataririk gogorrena bere oñetan paratzen bazan, bigundu gabe gelditu ezin zitekean. Jainko urrikaltsuaren doaia zan ori; bada pekataria pekatuak aitortzen ari zan bitartean, konfessore santua, era berean Jaunari eskatzen ari zan, peccatari gogor ura on biurtu zedin; eta gai onetan ere besteetan bezela, aingeruen antzekoa zan; bada espiritu zorionekoak bezela lurrean gizonai laguntzen zegoan, eta bere anima une artan bertan Jainkoarekin gozoro itz egiten arkitzen zan. O miragarrizko Aita Agustiñek Jainkoarekin zeukan adisquidetasun berezi, kuttun eta aingeruzcoa! O eta zein andia zan, zerutik Jainkoak biraltzen zion argitasuna ta grazia, biotz gogorak bigundu, pekatariak ezagueran sartu, ta egizko penitentziarekin zeruko bidean jarri zitezen!

Baña etzan naikoa beretzat bekatariak zeruko bidean jartzea; gañera nai izaten zuan, penitentzizko ta ildurazko bizitza egiten asi zitezela, pekatuen ordaña Jainkoari emateko, iraupen sendoan eriotzko orduraño bizi zitezen, erakuspide onak emanaz, eta birtute ta santutasunean asko aurreratuz. Gai ontan errietako agintedun eta famili aberats eta nagusiatan era berezian saiatzen zan: bada gauza agirikoa da jende lanoak geienetan persona printzipal oietan begiratzen duala, oien bidean jarraitzeko. Arrazoi onegatik orrelako persona nagusi eginkari andikoak asko enkargatzen zituan, Loiolako etxe santura erretira zitezela, egunen batzuetan ejerzizio santuak egin, eta astiro ta betaz kontzientzizko gauzak ongi ta zeero zuzentzeko; ta erakasle jakintsu Jainkoaren serbitzari au zuzendari zutelarik, etxe ta erri askoren probetxu andirako asmo zuzen eta santuak artuta, jarduera espiritual aietatik ateratzen ziran.

Orrezaz gañera pakezko aingeruaren izena egoki zetorkion; bada erri ta familietan oi ziran aserre, gorroto ta auzi gogorak erabaki ta pakean eta adiskidetasunean jendeak ipintzeko zeruko zorioneko doaia beti berakin zeraman; eta esan oi zuan, mi-xioetan ateratzen zuan eremaitz on edo fruturik andienetako bat orixen zala.

Gauza zaill edo nekezen bat iritxi nai zuanean, lenngo erregu andi ta penitentzi latzakin Jainkoari eskatzen zion, eta gero al zuana eginez gero, gutxiena uste zuan eran, kasik beti nai bezela ateratzen zitzaion.

Bere biotzeko imana ta bere begietako ninia Jesusen Biotza zuan; orregatik Debozio santu orretako billera edo kongregazioak al zuan erri guztietan jartzeko, egiñal guztiak egiten zituan. Nola Biotz Jainkozko orregandik mesede ta grazi bereziak artu izan zituan, urrikaltasun guztien iturri opatsu ta ugari ori jende guztiak ezagutu ta maitatu zezatela bizi-iro nai izaten zuan; anima guztiak zeruko ondasunakin aberastu zitezen; eta erriko jaunak esaten bazioten ere askotan billera oiek ezin jarriko zirala, erantzuten zien: ikusiko dezute, nola Jesusen Biotzak berak guztia lautu ta erraztuko duan; eta egitez ala gertatzen zan. Eta gai ortan inpernuko etsaiak, eragozpen eta persekuzio gogorak altxatzen baziozkan ere, bere birtute bikañakin, bere pazientzi ta mansotasunakin danak garaitzen zituan; gañera etsaien amorru ta malmutzkeriak oinperatzeko, zeruko biotz-argi ta abiso bereziak Jainkoak maiz biraltzen zizkion. Gai ontako gertaera batzuek ondoren jarriko ditugu.

Milla zazpireun eta berrogeita bigarren urtean, Na-

parroako Araiz-ko balleran, Arribe deitzen dan errian Aita Agustin mixio bat ematen ari zan. Nola jendetzta andia bildu bai zan, elizan kabitu ezinta, erriko plazan bere sermoiak egiten zituan. Egun batean itzaldian ziarduala, bat batetan ixildu zan, eta an zegoan sazerdote jaun bati deiturik esan zion: "Zoaz, gaixo dagoan erretore jaunaren etxera, ta galde zaiozu, zerbait nai ote duan". Agindu bezela apaiz jaunna joan zan, eta ikusi zuan gizon bat erretorearen etxetik igesi ateratzen zala, gero, eria zegoan gelara elduta, eriarri galdetu zion ea zerbait oker izan ote zuan, eta onek ezetz erantzun zuan; au jakitean guztiak konturatu ziran, gaixo ta etxean bakarrik zegoan erretore jaunari lapurreta edo beste gaitz andiagoren bat egitera joan zan gaizkillearen asmo bigurriak galerazitzeko, Aita Agustiñek zeruko abisoa izan zuala.

Orain Gipuzkoako Deba-n, gertatu zana esango degu.

Erri ontan Doña Catalina Arteaga zeritzan señora zar batek, etxeoak maiz erregutzen bazioten ere, testamenturik egin nai etzuan, erantzunaz, orretarako premirik etzegoala, bada etzala ain gaizki sentitzen. Etxekoak Aita Agustiñi deitu zioten, etxeo andre ura testamentu egitera mugitu zezan; baña orretarako arrazoi egokiak onez eman baziozkan ere, bere leloan gogor zegoan. Au ikusirik Aita Agustiñek aizkenez esan zion: "Begira, etxeoandrea, beriala egin bear du testamentua, (ta gero etxeo eskallera bat señalaturik añaditu zion): Laister ill bearko du, eskallera ontatik erorita".

Au aditzean beldurturik emakume gajoa, testa-

mentua egin zuan, eta Aita Agustiñek esan bezela, e-kallera artatik erorita, andik denbora gutxira ill zan.

Elorrio deitzen zaion Bizkaiko errian ondoren esango deguna, gertatu zan. Biotz oneko señora bat erri ontan bizi zan, eta Aita Agustin bisitatzera joan zitzaion batean, etxeakoandre oni esan zion: "Gutxienez zortzian bein komulgatzeko oitura iduki beza; bada bat-batetako eriotzaz ill bearrean arkitzen da, ta prest egotea ongi izango zaio". Eta esan bezela Sakramentuak artzeko betik gabe andik laister ill zan; baña eriotza santua egin zuan, Aita Agustiñen kontsejua jarraiturik, beti prestatu egon zalako.

Askoren iritzian etorkizun zeuden gertaera oiek zeruko argiz jakiten zituan; bada beste moduz ezin diteken gauza da. Jainkoarekin bat egiña bezela, Berakin gozoro itz egiñaz nola egon oi zan, eta bere angeru goardakoakin eta besteenakin zeruko jolasetan egoten zalako, oien antzeko abisoak maiz izan oi zituan; baña izanik aiñ umill eta barrunkoia, zerritik zetozkion mesede berezi oien berri txit gutxik jakitea Jainkoagandik iritxi zuan. Aita Agustiñek Jainkoaren borondatea egiteko egarri bizia zeukan, eta gai guztiak Jainko Beraren glorirako ta lagunarerer onerako zuzentzen zituan; eta orregatik zeruko Jaunak ere Aita Agustiñen naia egiten zuan. Itz batean: Jainkoaren serbitzari onek ematen zituan mixioak izan oi ziran osoak, beteak eta frutu ugariz gañeztuak, eta Jainko ber-berak deitutako mixiolari bati bezela alde guztietara joateko, deitzen zioten, eta toki guztietara joateko alegiñak egiten zituan. Urte guztian bakarrik bi edo iru illabete mixiorik eman gabe egoten zan; eta orduan ere batez ere apaiz

jaun eta zaldun askok berakin ejerzizio santuak egitera Loiolara jarraitzen zioten. Esan diteke, etengabeko lanean zerurako animak irabazten ari zala, zela irazekiarekin predikatzen, konfesioak aditzen, eta ejerzizioak ematen; eta urruti bizi ziran persona askoren kontzientziak ere, iskribuz zuzentzen zituan. Izanik osasun gutxikoa, eta kasik beti oñazez egon oi zana, Jainkoaren milagroez izan ezik, aguantatu ezin zezakean. Eta egi onen probantzarako, ara sarritan zer gertatzen zitzaion. Miñez oetua zegoen aldiren batzuetan, Jainkoaren serbitzurako zeregiñen batera deitzen bazioten; edo bat edo bat konfesatzaera, tristeren bat konsolatzera, edo iltzen zegoanen bati laguntzera, bizkor jeikirik, ara joaten zan, eta bere lana egiteraño zutik irauten zuan, lagunaren onerako, bere osasunaz eta biziaz azturik; ezaguturik zeukalako noski, gai oietan era bereziaz Jainkoak laguntzen ziola.

Ala ta guztiz ere, bere animaren santutasunaz azturik, lan agiriko oietan etzan geiegi arazotzen; baidzik lenbiziko eginkizunak oiturazko jarduera santuak beti izan oi zituan: Meza, esamiñak, irakurtze espirtualak, adimenezko orazioa, Ama Birjiñaren errosarioa, ta beste debozioak, eta auben artean eriotzako prestaera gauoro egiten zuan, gau artan bertan ill bearko baluke bezela; bada esaten zuan, lan on oiek arreta ta leialtasunez egin ezkeru, Jainkoaren Errukiak beste bere lan guztiak bedein katuko zizkiola, ta eskuak betean eremaitz on, gozo ta ugariak artuko zituala. Al zualarik, apaiz-errezoa belauniko jarririk egiten zuan; eta alako erreberentzi ta era onez non, ikusten zuten guztiak deboziok mugitzen zituan. Aldi guztietan, baña batez ere

mixioak ematen zebillenean txit lo gutxi egiten zuan. Lagunak goiz jeikiagatik, beti ernai ta orazio egiten arkitzen zuten. Orazio luzea egin eta gero, egunero konfesatzen zan, eta Meza santua zeruko poz, argitasun eta naiera irazeki miragarriarekin ematen zuan. Jendea konfesatzen asi baño lenago, orazio andi irazekiak egiten zituan, eta sermoien gaiak Sakramentu Santuaren aurrean prestatzen zituan. Eta alako moduz mixio santuak eratzen zituan, non, ill bakoitzeko erretiroko eguna idukitzea etzioten galeraziko; ta profesatua bazegon ere, botoak berriartzeko, jesuitak egiten dituzten iru eguneko jarduera santuetara etzuan paltatuko, ta oraindik gutxiago urteoroko zortzi eguneko ejerzizioak utziko zituan. Gauz oien guztien testigu ikuslari lagun asko dira, ta oien artean bereziki Aita Inazio Arizaga. Jaun onek dio: Aita Agustiñek Bataio santuan artutako grazia bizi guztian gorde zuala, ta ezaguerazko pekatu ariñik sekulan etzuala egin; alako moduar non, egunero konfesatzen bazan ere absoluzioa emateko gairik etziola arkitzen, eta kondizioaren azpian eman bear izaten ziola.

Mudantz andirik gabe au izan zan Aita Agustin Kardaberaz-ek ogei urtean egin zuan bizitza, eta ainbeste lan, arazo ta nekeakin auldurik, asmo edo pe-txuko estuarekin eritua, aotik odol asko botata, iltzeko zorian bezela, garaipenezko palma ederrakin apaindua, Loiolako etxe santura erretiratu bearrear arkitu zan; baño ez atsedenean egotera; baizik ia ta etzan gauza mixioak emateko, oraindik beste langai mueta batzuekin Jesu-Kristorentzat anima asko irabaztera.

V

LOIOLAN EGIN ZUAN BIZITZ ERRETIRATUA

Penagarri izango zitzaion noski, bere biotz barreneko animen zeloak eskatzen zion mixioetako lanak utzita, bakartegian bizi izatea; baña nola gauza guztietan Jainkoaren naia egitea baizik nai etzuan, Loiolararen erretiratu zan, eriotz on bat egiteko prestatzera bazijoan bezela. Jainko berberak biotzaren barrenean itz egin zion era ontan: "Orain arte erriz erri Ebanjelioa predikatuaz animen billa biraldu zaitut; orain nai det, jendeak Loiolararen etorri, ta zedori or billa zaitzatela."

Nagusiak agindu zioten ejerzizioak emateko kargua, poz andiz artu zuan. Urte bakoitzeko aldi guztietan, ez bakarrik inguru aietako klase guztietako personak zetorzkion; baizik baita ere urrutietan bizi ziran sazerdote jaun eta zaldun prestu asko, Aita Agustin gidari zalarik, iritxi nai zutela biotzetako pakea, ta bere bizimoduaren zuzenbidea. Ongi zekitelako Aita Agustin zeruko bideetan gidari trebea zala; ta onen santutasun eta gozotasuna ongi ezagutzen

zutelako; kasik guztiak bizitz guztiko konfesioa berakin egitea nai izaten zuten; eta nola buruko ta urdalleko oñaze gogorrek zeramazkian, eta erreumakin erdi elbarritua zegoan, lan ori txit astun eta neketsua zan beretzat; ala ta guztiz ere, guztiak entzuten zituan; eta bere osasunaren kontuari asko begiratu gabe, eramankizun pixuaz etzan errenkurutzen, eta biotz on eta arpegi alaiatz guzti-guztiak serbitzeko beti gertu arkitzen zan.

Azkoitiko jende printzipal guztiak era bat bein baño geiagotan ejerzizio santuak egitera joan zitzaizkion, eta santutasunezko frutu ugariak atera izan zituzten; eta ori ez bakarrik Pazko denboran, baizik aldi ortaz kanpora ere bai, bere anima, etxe ta erriak Jainkoaren lege zuzenean eta era egokian jarri nai izan zituztelako. Ejerzizio santu oien bidez egiten ziran gauza miragarriakin Aita Agustin bera arriturik zegoan, bada lenago zerbait zabar bizi ziran aberatz eta persona menak izanik ere, geroztik, zaldun kristau onai zegokien eran, egunero orazio egiñaz, errosario santua errezatuaz, Meza, esamiña ta liburu onak irakurtzeko oitura alabagarria arturik, eta maiz eta ongi konfesatu ta komulgatuaz, erri guztien ixpillu eder izatera asko ta asko eldu ziran.

Beste ainbeste ta geiago eliz-gizonakin gertatzen zan. Loiolako etxe santura joaten ziran, Aita Agustin zuzendari zala, ejerzizio espiritualak egitera, ta animako pake, poz eta santutasuna iristen zituzten. Oien arteko batekin ara zer gertatu zan. Bear bezin ongi bizi etzan eleiz-gizon au, adiskideren batek mugitu erazirik noski, ejerzizioak egitera joan zan Aita Agustiñek atsegiñezko arrera egin zion; baño arentzat siñalaturik zegoan gelara lagundurik, arpe-

g^o itzalarekin onela itz egin zion: "Begira non sartzen zeran. Orain denbora gutxi, gela ontan bertan gizon batek ejerzizioak egin zituan, eta abek bukatu, ta bereala ill zan; zuri orobat gertatu bear zatzu. Kontu bada, ta Jainkoak ematen dizun aizkeneko era onezaz ongi aprobezta zaite." Aita Agustiñen itz ciek sazerdoteari biotzaren barreneraño sartu zitzaizkion, onen santutasunaren berri ongi zekielako. Jarduera santuak bear bezela egin zituan; bizimodu berri ta santu bat egiten asi zan; baña andik laister. Aita Agustiñek esan bezela, Jainkoaren pake ta esperantzaz beterik, ill zan.

Aldi ontan gure Aita Agustiñek animen onerako euskerazko liburu txit egokiak izkribatu zituan. Oien artean "*Ondo iltzeco ta ondo iltzen laguntzeco liburua*", "*Aita Asteteren Catecismoa*", "*San Inazio-ren Ejerzizioac*", "*Jesusen Biotz Sagraduaren, San Inazio-ren, eta San Jabierren Nobenac*", "*Confesatzeco, Comulgatzeco ta Meza entzuteco Modua, edo Escu Liburua*", "*San Isidroren Bizitza*" ta beste oien antzekoak, Euskal Erri guztian, batez ere baserritarren artean zabaldu ziran, eta anima askorentzat txit probetxu andikoak izan ziran, eta gaurko egunean ere, oraindik ala dira.

Aita Agustiñen ongi nai ta zeloa etzan bakarrik animentzat; baizik bere biotzeko naitasun Jainkozkoa gorputzetara ere zabaltzen zan. Aberatsai limosnak eskatu, ta pobreen artean, batez ere pobre bear tsu lotsatien artean zabaldu izan oi zituan. Azpeitiko Ospital berrian pobre gaixoak ezeren premirik izan etzezaten, eta umezurtzak ongi azi, ta ongi mantenduak eta jantziak izan zitezen, lan asko egin zuan. Itz batean: bere zelo, naitasun eta alegiñ ego-

kia gai on guztietara zabaldu ta saiatzen zan; eta orregatik persona prudente jakintsu askoren iritzian, gure Aita Agustiñek Loiolako bakartegiko jarduera Jainkozko oiekin, mixioetan bezin eremaitz ugari, andi gozo ta pozkarriak atera zituan.

Aita Agustin ezagutu, ta zerbait tratatu izan zutenak zioten, Jainkoak indar zeruko bereziak eman ezik, iñolako moduz bizi ezin zitequela; bada gorputz eta animan zeramazkin oñaze ta atsekabeak izugarriak zirala. Gorputzean erreuma, belarri ta aoko miñak, egun askoan irauten zion buruko jakeka miña; aidi askotan oso elbarritua ta ain makaldua gertatzen zan, ezen, bazirudien bereala iltzera zijoala.

Oraindik andiangoak ziran animako atsekabeak; bada aldi askotan infernuko etsaiak erasotzen zioten, betiko kondenazioko gogoramen negargarriakin, bildurtzen eta ikaratzen zutela, iduripen izugarriak jarriaz, ezpata, aizkora ta beste orrelako erramientakin ertsitua balukete bezela, eritu, gaizki erabilli, ta infernuko sugarraren erdira eramana izango balitzake bezela. Batalla ta burruka ikaragarri oietan besterik egiten etzuan; baizik Jaunaren borondate santura oso jarri, guzti guztian, Bere erabaki ezkutatu andietara erakidatuaz, Bere Ontasun aizken gabeak aparatuko zuala, itxaronaz; eta egiaz ala gertatzen zitzaien; bada usterik gutxiena zuanean, zeruko argi ta gozamenez inguraturik eta gañezturik arkitzen zan. Eta modu ortan makillatua ta elbarritua gauba pasaturik, bazirudien, bigaramonean Meza santua esateko gauzako etzala; baña ordu siñalatuan jeiki, ta Sakrifizio santua eskaintzeko egoki prestatzen zan; Jaun zerukoak larritasun aietan uzten bazuan ere, guztietatik libre ta garailari ateratzen zualako. Bera-

gatik arrazoiz esan zitekean: "*Certamen forte dedit illi, ut vinceret*": Pelea gogorrean uzten zitzaion, garailari irten zedin. Asko alditan padezitzen baze-
goan ere, Mezik eman gabe etzan geratuko; bada be-
retzat gaitzik andiena, Meza santurik eman gabe gel-
ditzea zan.

Aldi ontan bere kontzientziaren kontua Vallado-
lid-en bizi zan bere zuzendari Aita Juan Loiolari
ematen zion, iskribatuaz itz abek: "Job santuaren
gisako gaubetako izuak eta larritasun ezin andia-
goak daramazkit, eta nere dolore ta samintasunetan
ain miseritua nabill, ain durduritu ta naspillatua na-
go, ezen, askotan nor naizen, eta zertan ari naizen,
ez dakit. Anima ta gorputza igui garratz batekin lo-
tuak dauzkat, padezitu bear dedanean; baña Jain-
koaren errukiari eskerrak, laister pakea biurtzen zait,
eta zeruko glorian bezela arkitzen naiz." "Bildu
naiz nola eramaten ote ditudan, Jainkoak biraltzen
dizkidan naigabeak; eta beste aldetik ere, ainbeste
gozamen biraltzen dizkidanean, ikaratzen naiz, nola
Jainkoari kontu emango ote diodan; bada zenbait al-
ditan Jainkoaren argi eder bat nere jabe egiten da,
ta bat-batetan glori, pake ta ezin adirazi ditek-
en zeruko gozamen bete-betea arkitzen naiz."

VI

JESUSEN BIOTZAREN AGERKERAK

Zenbaterañoa zan Aita Agustiñek Jainkoarekin zeukan adiskidetasun andia, zerbait adierazitzeko, bere animako zuzendari Aita Juan Loiolari iskribatu zizkan kartetatik atera ditugun, izan zituan Jesus en Biotzaren agerkerak batzuek, emen jarriko ditugu. “Urte asko da, dio Aita Agustiñek, daukadala Jesusen Biotz Jainkozkoaren ikusmen argi ta mesede bereziak. Ikusmen abek, batzuetan idurimenezkoak, eta aizkeneko urte abetan adimenezkoak izan ditut. Batzuetan Jesus aurkeztutzen zait amodiozko Sakramentuan ume txit Jainkozko, edertasunez beterikako baten eran; gozamenezko bere begietatik lurrean bizi zanean bezela, era miragaarrian Bere Jainkotasun milla eguzki baño ederragoa ikusten dedala. Ikusmen zoragarri orri begira nagoanean, Bere Andientzak maiz esan dit: “Ara emen, Agustin, nere Maitetasuna. Begira, zenbat maite zaitudan.” Eta itz abek esatean, gauz ixill bat azaltzera dijoana bezela, eta ondasun ezkutatuak agertu naiean, Bere esku sagraduakin Bere bularra idikirik, Biotz Jainkozkoa erakusten dit;

eta au ikustean nere anima arritu ta mirezturik, Jainkozko itxaso artan sartu, ta ondatua bezela geratzen da.

Beste batzuetan Biotz Jainkozkoa agertzen zitzaidan aldi berean, ezaguera txit argi ta altua izaten nuan, jakin nezan, Jainkotasun guztiaren Jargoi egokia Biotz ura zala.

Beste aldi batzuetan ikusi det sugar andi Jainkozkoak Biotz artatik aterarik, igo, ta alde guztietara zabaltzen zirala, bizirik dagoan persona batek, arnasa egitean, Biotzetik bultza egin, eta biralduko balituke bezela.

Beste batzuetan Biotz santu au agertu zait, estura ta larritasunez betea, iltzeko zorian dagoanaren antzera, penaz eta garratzasunezko itxaso batean sartu, alde guztietatik ertzitu ta ondatua balegoke bezela. Bazirudian bizitz ilkorakin lurtean zegoanean "*Quomodo coarctor*" esaten zuanean bezela arkitzen zala. Orduan aditzera ematen zizkidan, munduko gizon eskergabekoakatik zeuzkan kejak; eta batez ere geien eta maizen eta ur-urretik Bera tratatzen zutenak, ematen zizkioten naigabeak.

Beste batzuetan amodiozko ansi oiek azaldu ditzkit Jainkozko Biotz onek maitetasunezko egarri biziakin urtua, ta eriozko larritasunaz inguratua dagoanaren antzera, gizonen esker on, eta naitasunakin egarri ori itzali nai lukela; gizonen biotzak ordea, arri biurturik, legor eta gogorkeriz erantzuten diotela. Badirudi, Biotz Santu larritu onek garratziz, lantuz eta zizpuruz gizonai deitzen diela Bere maitetasun eta samintasunak adierazi naiean; baña gizonak munduko arazo, ta zaratakin txoratu ta lilluraturik, jara-

monik eta kasorik egiten ez diotela; baña alaz guztiaz ere Bere guganako naitasuna izpirik ere ez da epeltzen; baizik geiago ta geiago azi, sutu, ugartu ta zabaltzen da.

Beste aldi batzuetan Biotz Jainkozkoa agertu zat gure atsegiñ guztien biltoki, ta atsedenezko jargoi zeruko glori dan danak berakin dituana bezela. Bere esku Jainkozkoakin leku santu santueneko gortina irikirik, Jesus, nere Maitetasun txit gozoak onela esaten zidan: "Ea, Agustin, Nere Biotz onetan sarzait, sartu; ta bertan atsedeen ezazu; emen egizko atsedeen gozo, ta sendoa eukiko dezu, ta iñork ere ez dizu kenduko, baldin zedorrek zere eskergabekez galtzen ezpadezu."

Beste batzuetan gauza guztien Jaun eta Jabe ta zeruko gloriaren Erregea bezela Biotz adoragarri ori agertu zait; eta bat-batetan nere animako begiak argiturik, ezagutzen nuan, txit arrazoiz eta Justiziz gizonen kontra aserreturik zegoala; bada batez ere Sakramentu Santuan amodiozko probantzak emanik, ezaguera gabeko gizon esker gabekak aiñ erraz Beraz aztutzen dira, ta munduko gauza zirzil ezerezkatik uzten det.

Beste batzuetan aditzera ematen zidan, zenbait miseri ta atsekabeekin gizonak kastigatzen bazituan ere, ezagueran sartu ta Beragana biurtu zitezeten bakkarik ori egiten zuala. Biotz maitati onek, gizonak merezi bezela kastigatzea ezin eramanez du; baizik ainbeste samintasun, pena ta atsekabeekin irabazi zituanez gero, ama amodiotsu batek bezela Biotz beraren erdian beti daramazki.

Bere izakizunez maitetasun ederra dan nere Amo-

dio Jesusek au dio: "Nere batalla guztietan amodioz peleatu nai nuke; nere garaipen guztiak amodioz irabazi nai nituzke; nere amodioak garaitu ta nagusi izan dedilla; nere amodioak erreina dezala; nere amodioa paketasun gozoan gizonen biotzen Jabe izan dedilla; nere maitetasunak ez luke naiko gogortasunik egitea; baizik maitetasunakin garaitu; maitetasunez irabazi; maitetasunakin azpiratu, ta maitetasunez gizonen biotzen Jabe izan." Auxe da, Aita nerea, gure Maitetasun Jesusek diona."

Onelako gozamen zerukoak batez ere Jesus Sakramentatuaren aurrean zegoanean, izaten zituan Egunaz eta gabaz maiz bisitatzen zuan, eta askotar ordu luzeak an igarotzen zituan, eta ordu oiek momentu laburrak iduritzen zitzaizkion; bada gorputzaren argaltasunakin azturik, espirituz bere atsedena-
ren biltoki gozora, gozoro egara egiñik, Jesusen Biotz Jainkozkoan zorioneko atsedena arkitzen zuan. Orregatik bere eskutizetan sarri esaten du: "Jesusen Biotza da nere gloria, nere zerua, ta atsekabe dantetan nere gordelekua."

Bere mindura ta gaxotasunetan Jaun Sakramentua bisitatzera joateko, gelatik ezin irten izatea penarik andiena izan oi zuan; eta orduan oiean zegoar tokitik bere biotzeko zaletasunak biraltzen zizkion. Baita ere Aingeru goardakoari erregutzen zion, bere ordañez adoratzera ta biotzeko naitasun guztia ematera joan zedilla. Beste ainbeste San Luis Gonzaga ta San Estanislao-ri eskatzen zien; eta ziertotzat daukagu, espiritu zorioneko oiek Aita Agustiñen naia txit egoki egiten zutela. Nola gozamen zerukoan antzekoak lurtean gozaten zituan, etzan arri-
tzeko gauza gorputzaren lokarrietatik askatua izate-

ko, deseotan egotea; deseo oiek, ordea, paketasunez beteak ziran, eta guztiaz gain beti Jainkoaren borondatea oso egitea beste gauzik nai izaten etzuan. Egunero iltzeko bezela konfesatzen zan, eta Meza Santua aizkenengoa izango baluke bezela beti ematen zuan.

VII

BESTE JESUITAKIN BATERA ESPAÑIATIK DESERRITUA ATERATZEN DA

Gure Aita Kardaberazi atsekabe eman zezaiokean gauzik munduan izan al bazitekean, Jesusen Konpañiak zeramazkian nekeak izan bear zutela dirudi; baña etzan orrela gertatu. Españiaren alde guztietako jesuitak erbestetuak izateko agindua etorri zanean, sekulan baño alaiago ta paketsuago bere lagunai agertu zitzairen, eta Jainkoaren erabaki ezkukutuakin osotoro erakidaturik, Loiolako etxe santu txit maiteari betiko agur egitera prestatu zan; bada ongi sinisturik zegoan gertatzen zitzairen guztia Jainkoaren goraldi andienerako ta Jesusen Lagundi beraren onerako izango zala. Nekez; baña biotzeko pake ederrakin Donostira joan zan, eta emen ogei ta sei egunean katigo itxian iduki zuten, gaizkilleren bat izan balitz bezela, atsekabe oiek pazientzi miragarritz zeramazkiala. Jainkoaren maitetasunaren baitura ta siñaletzat naigabe guztiak artzen zituan, eta berakatik Jainkoari esker onak ematen beti ari zan. Italia-ra joateko ontzian sartu ziranean, bere adiski-

de beste jesuita bati esan zion: “Ez dakit nola adierazi nere biotzean sentitzen dedan poz eta alaitasuna. Ez deritzat lurrean gozamen andiagorik izan ote ditekean. Jarri nazazu ontziaren baztertxo batean, eta bazter ori neretzat zeru eder bat izango da.” Eta ala izan bear zitzaion; bada itxasoz joan ziran bitartean bazter artatik etzan ateratzen, premizko gauzen bat egiteko izan ezik. Ogei ta sei egunean Civita Vecchia-ra eldu ziran, eta Erromara sei edo zazpi legoa baik etzeuzkatelako, poztu ziran; Aita Agustiñek, ordea, esan zien: “Jainkoari pazientzia eska zaiozute, oraindik datozkigun atsekabeak bere izenean eramateko.” Au entzutean arriturik beste lagun jesuitak; bada ongi zekiten, Aita Agustiñek zeruko oarkerak maiz izaten zituala. Dudaren bat geratu bazitzaien, egun gutxi barru dudatik irten ziran; bada Madril-go gobernuaren erabakia itxaroteko, ta ontzitik ez ateratzeko ordena artu zuten. Españaiko jesuita guztiak Corcega-ko ugartera eramana izan zitezela agindu gogorra etorri zan; eta ara joan bearrean arkitu ziran. Aita Agustiñi Calvi zeritzaion portua tocatu zitzaion. Toki triste ta latza zan; baña oraindik penagarriagoa alde aietan Corcega-koak Genova-tarrakin gerran zebiltzalako. Gaixo ta indar gabe baze goan ere, lurrera jetxi ta lenen egin zuan gauza, erriko parrokira joan ta, Jesus Sakramentatuari aspaldiko partez ikusaldi bat egitea izan zan; eta andik aurrera Sakramentu Santuaren aurrean al zuan denborik geiena igarotzen zuan. Gauz arrigarria, ain makal bazegoan ere, maiz ikusten kasik zirkiñik egin gabe ordu luzeetan Elizan, eta Elizan ezin zuanen etxeko txokoren batean Jainkoarekin itz egiten egoten zala. Gose, egarri, tristura ta estura larri as-

ko, jesuita deserritu errukarriak, alde aietan igaro bear izan zituzten; guztiak, ordea, pazientzi ta biotzeko sendotasunaz eraman zituzten, Jainkoaren laguntzarekin, Aita Agustiñek orretara txit asko animatzen zituala. Onak irazekiro Jaun Altsuari erregutzen zion gora-bera ta lanbide gogor aietan bere Bokazio edo Jainkoaren Deituran batez ere gazteak sendoki iraun zezatela.

Egun batean kordegabeturik bezela jarririk, esan zuan; "zerurako autatuak eta lenaz arako siñalatuak gera, Jainkoari esker onak eman ditzazkiogun." Bere erreguakatik batez ere, uste degu, gertatu zala ainbeste miseri ta atsekabeen artean ain gutxi izatea Jesusen Konpañiatik atera ziranak. Badirudi, baita ere, zerutik argi berezia artu zuala, jakiteko, "Jesuita gazteak goraldi andiz, berriro lan onak egingo zituztela." Sarritako esakera au zuan: "Utzi gaitezen gobernatzen; bada Jainkoa gure Aita amodiotsoa da; Jainkoa beti Jainko da; ta utsik ezin egin dezake; utzi gaitezen gobernatzen, esku onetan gaudeta."

Calvi deritzan kaiara eldu ziran. Zeramazkian mi-xeriakatik penaturik zegoan erlijioso bati bein batean orrela esan zion: "Ez gera luzaro emen egongo; emendik laister aterako gaituzte." Eta ala egiaz, naigabe asko Jainkoari eskañi ta gero, andik ama-lau illabetera, soldaduentzat eta oien abereentzat, lasto ta belarra eramatera joan ziran ontzi txar batzuetan sarturik, Genova-ra eraman zituzten. Aietako batean joan zan Aita Agustin neke ta mindura andiak zeramazkiala; baña Jainkoari esker onak ematen Bere izenean anai jesuitakin Onbide edo Justiziagatik padezitzeko diña egiten zualako. Genova-n

Aita Solari nagusi zuala txit pozkidaz aldi batean bi-
zi izan zan; baña agintedunen ordenaz irugarren al-
diz itxasoz, beste gaixorik zeuden guztiakin batera
Via-Regio-ra eramán zuten; eta emendik legorrez Pi-
sa ta Florencia igarorik, Bolonia-ko uriaren inguruan
zegoan Castel San Giovanni izena zuan erri txiki ba-
tera.

VIII

CASTEL SAN GIOVANI-KO ERRIAN EGIN ZUAN BIZIERA, AIZKENENGO GAIXOTASUN TA ERIOTZA

Neke andiak igarota gure Aita Agustin Castel San Juanera eldu zan; alabaña biotzeko poz berezia artu zuan, ikustean Aita ta Anai jesuitak an bizi ziralara kasik Españian bezela, bakoitza bere lan eta orduetan San Inazioaren erregla zearo gordetzen. Bazekian noski zeruko argiz bere lurreko bizitzaren bukaera Italian izan bearko zuala, ta orregatik esan ditteke, ara ezkerok, eriotzara prestatzea baño beste gauzik egin etzuala. Kasik egun guztiak Elizan zeramazkian; itz premizkoak ezpaziran egiten etzituan eta beti zeruan pentsatzen eta Jainkoakin itz egiten ari zan. Aizkenengo eritasunean erori baño egun batzuek lenago, bere konfessoreari onela esan zion: "Eriotza laister datorkit, eta orduan Jainkoaren urrikaltasunean nere uste guztia jartzera, animatu bearnazu." Eriozko gaixotasuna etorri zitzaionean, medikuaren obeditmentuan oso jarri zan, gauzik txikienetan obeditzen ziola, ta medikuak, guztiz mirezturik.

gaixoaren umiltasun eta menpetasuna ikusita, onelazion: "Oetik zuzen zerura dijoa Aita au." Aita Inazio Arizaga bere lagun sarri izan zitzaiona bisitatzerajoa izan zitzaionean, era ontan itz egin zion: "Iltzea biziro deseatzan det, Jesusekin bizitzeko: zerura Jainkoaz gozatzera."

Urri-illaren 15-ean Santa Teresa-ren fest egunean, Elizako Sakramentuak eman zizkaten, eta debozio irazekiz eta poz andiaz artu zituan. Une artatik aurrera premiz ezpazan, etzuan itzik egiten; bada bere anima lurrean baño zeruan geiago bizi zan. Batutasun santu onek iru egunean iraun zion. Bakarririk noizik eta bein esaten zuan: "Eman nago pake-pakez, Jauna noiz etorriko ote zaidan." Baita ere inoiz bere baitan mintzatzen entzuten zitzaion: Ay Agustin, Agustin, ainbeste mesede ta urrikaltasun artuta, nola Jainkoari bear bezela esker onak emango dizkiotzu?" Eta bere konfesoreak esaten zuan, Jesus gure Jaunak Ama Birjinak eta aingeruak egiten zizkioten ager aldietan, itz oiek eta oien antzekoak esaten zituala. Azken-Untzio santua eman zitzaion, Aita nagusiak indulgentzia aplikatu zion, eta comundade gutzia, animaren gomendazioa errezatzera, etorri zan, eta pake osoan, noiz azkenenکو asnasea ematen zuan inork igarri gabe, Kreatzallearen eskuetan bere anima entregatu zuan 67 urte, bi illabete gutxiago zituanean, 1770-garren urteko Urri-illaren 18-an San Lukas Ebanjeliaren egunean. Castel San Juango Eliz nagusian, aldare nagusiaren azpiko barrunbean lurra eman zioten. Kaja zerraldoa bi giltzakin itxia izan zan: bata Aita Lorenzo Uriarte España-ko Kastillako Probintzialari eman zitzaion, eta

bestea Ludovico Gundi erri artako apaiz nagusiari.
"Obtūt cum fama sanctitatis."

Aita Pedro Calatayud eta Aita Juan Loyolak diote: Aita Agustin Kardaberaz, birtute bikainduna ta santua izan zala; eta oien txit ezaguna zan; bada berrogei ta geiago urtetan berakin tratatu zuten. Aita oiek berak eta ezagutu zuten beste zenbaitek, diote: "Aita Agustiñek mallarik goieneko birtuteak iduki zituala; baña txit gorderik "Kristorekin Jainkoagan": "*Cum Christo in Deo.*" Umetasunetik zeruko agermen miragarriak izan zituan. Oien artean sazerdote egin baño zerbait lenago ondoren esango deguna gertatu zitzaion: Aita Agustiñek berak toles gabe gertaera nola zan esaten du era ontan: Maria txit santaren izen gozoaren eguna zan, eta illuntzian, egun guztian arazotua egon nintzalako, irakurtze espirituala egitera ninjoanean, nere Jaunari amodioz kejatu nintzaion, ta orduan edertasun miragarriaz Jesus agertu zitzaidan: deitu zidan Beragana, ta zeruko esku aiekin Bere bular eta Saiets Sagradua iriki, Bere Biotz Jainkozkoa argiro erakutsirik, zeruko atsegiñakin asetzen ninduala, esan zidan: "Ene seme, sar zaite nere Biotzean, eta bertan naroro atsedengo zera", ta betiraundeko gozamen guztiak dauden amodiozko biltoki artan, Jaunak bere eskuakin sartu ninduan, eta zeruko ezkutapen altuak Jainkoaren amodiozko itxaso ondo gabe artan ikusi nituan, eta gero esan zidan: "Ene seme, au da nere Biotzean sartzen zeran lenengo aldia; emendik aurrera ate au beti zabalik idukiko dezu, nai erara bertan atsedeen dezazun. Emen idukiko dezu zure bizitza ta egonlekua. Ni naiz zure Jainko ta zure maitea. Naiz eta nai det guztia zurea izatea, ta zu guztia nerea izan-

go zera. Nik autatu zaitut, eta neretzat iduki nai zaitut.”

Aita Calatayud eta Aita Juan Loyolak jakin zizuten gertaera oiek eta oien antzekoak aditzera ematen dute, Aita Agustin Kardaberaz Jainkoaren adiskide andia izan zala.

A. M. D. G.

EUSQUERAREN

BERRI ONAC

ETA ONDO ESCRIBITCECO,
ondo iracurteco, ta ondo
itzeguiteco Erreglac:

CURA JAUN,
TA ESCOLA MAISU CELOSOAI

Jesus-en Compañiaco Alta Agustin
Cardaberaz-ec esqueñtcen, ta de-
dicatcen dieztenac.

1761. Urtean.

BEAR DAN BEZALA.

Iruñean Libruguille ANTONIO CASTILLA-ren echean.

(Lenengo argitaraldiaren azala edo ataria)

Lenengo argitaraldia: "Iruñean Libruguille ANTONIO CASTILLA-ren echean. 1761 urtean".

Bigarren argitaraldia: "Euskalzale" errebista, Bilbon: XVII geia (1897, Garagarrillan 1-an — XL geia Irailan 29-an).

Irugarren argitaraldia: "Tolosan Libruguille EUSEBIO LOPEZ-en echean. 1896 urtean".

Laugarren argitaraldia: Auspoa, 37 (1964).

Irakurleari, berri onak

Erroman, erriaren errenta andi eta fama ere andiagoarekin, ondo itzegiten ikasteko, edo Elokuenziaren eskolak aurreneko iriki zituena, Marco Fabio Quintiliano izan zan. Au, autore andi askok diotenez, jaiotzaz edo bere jatorriz, gure Españako semea omen zan. Eskola oiek, konseju aundiaz ta berriaz, Erromak para zituen, gazte alperrak galdu ta munduaren desonragarri izango ziranak, ondo azi ta Erromaren onragarri izan zitezzen. Eskola orietan ogei urtetan maisu onek Erretorika jende gazteai txit ederki erakutsi zien: eta ikasle edo dizipulo seña-latu asko atera zituen: eta, besteen artean, Plinio bigarren edo gazteena bat izan zan. Ciceron-en urrengoa Quintiliano esan edo kontatu oi da: eta onek, ark baño ere obeto

gauzaren batzuek begiratu, ta len baño molde obean ta argiroago agertu edo utzi zituen.

Ogei urteak ainbeste jenderi erakasten igaro, eta, Marcelo Victorio bere adiskide laztanaren erreguz, onen semearentzat, amabi libru, munduan txit estimatuak, orañ “letra ederrak” deriztenak, ondo ikasten asitzeko, egin zituen. Orietan, maisu agudo ta suabe paregabe onek, antziñako autore erretoriko, poeta ta beste gizon andi lenagoko guzietan ikusi ta ikasi zuena, iñork bestek ez bezela, moldaturik eman zigun: eta gazte bat aurtasunetik nola ondo azi bear dan, A, B, C,-tik asi ta gizon prestu, txit jakintsu edo biribill egiñ arteraño, “letra eder” guzien ikasteko bide ta lezioak begien aurrean klaro ifintzen ditu.

Orañ bada, irakurle kristaba: baldin Quintilianok, Marcelo bere adiskide kutunagatik, ta Geta aren semea mundurako ondo azitzeagatik, amabi libru, ainbeste erregla ta lezio banaka argituaz, atera bazituen, guk gure Jaungoiko guzien Aita maiteagatik ta animen salbazioagatik, zer ez degu egin bear? A! Batetik bestera asko dijoa! Gure intenzioaren aldean arenak zer ikusi etzuen. Ark

lurrerako, guk zerurako: ark giza arterako,
guk Aingeru arterako umeak ondo azitzea
nai degu: eta guzia, ez guretzat, baizik
Jainkoaren gloriarako izan dedin. Baña ori,
edo al deguna egiteko, goragotik edo antzi-
ñagotik asi ta ur garbia bere jatorrizko itu-
rritik artu bear degu: ta euskararen berri
beste izkeretatik nolabait atera bear degu.

I

BESTE IZKUNDEEN ALDEAN EUSKARA

Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki? Zerutik, edo Jaungoikoagandik, gizonen asmazio gabe. orien gañeko gauza bezala etorri zala, Euskarak berak bere era eder ta armonia paregabean ondo seguru esaten edo adierazotzen du. Beste izkunde edo lengoajeak, nork daki nastu ta batera ta bestera nola ibilli diran: Euskera, Jainkoak nai-ta, menditarte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izandu da.

Txantxetan esan oi da, edo Euskaldunak esan oi dute, Jaungoikoak Paradisuan Adan gure Aitari euskeraz "Adan, non zera?" esan ziola. Euskera Jainkoaren gauza bezala, ara-

ko ta edozeñ lekutarako diña bazan, Jainkoak ala nai izan balu. Baña gauza ziertoa da, Jaungoikoaren izketa, Paradisuan ta gero ere, hebreoz izandu zala. Fedeak Eskritura sagraduan esaten digu, munduaren asieran, gizon guzien izkunde ta lenguaiea bat eta bakarra zala: "*Erat autem terra labii unius, et sermonum eorumdem.*" (Gen. 11.) Gure Aita Cornelio a Lapidek, Eleizako Doktore ta interprete santuakin kontra atera, ta dio. lengoaje edo izkunde ori hebreo zala, ta onek berak milla ta zortzi eun ta geiago urte bakarrik mundu guzian iraundu ta serbitu zuen, aurrenetik Babel-ko Torretzarra asi arteraño: orduan lengoajeen naspilla izanduzan: ta arrezkero ere nasgabeko hebreo garbia usatzen zala, dio gure Corneliok.

Heber Jaungoikoaren gizon ta Abraan santuaren asabaerena, edo irugarren aitonak, Abraan, Isaak, Jakob ta bere ondorengokin, Jainkoaren fede ta Paradisuko lengoaje santua gorde zuten. "*Heber vir sanctus... a quo orti et dicti sunt Hebraei, qui primigeniam Paradisi linguam Hebraeam cum vero Dei cultu soli retinuerunt.*" (Cornel. in c. 10. Gen.) Eta au berau leku askotan dio. Babel-ko Torrea asi arteraño lengoaje hebreo bakarra ta guziak aditzen zutena

zan: eta, ango beargilleai gogoa kentzeko, Jainkoak izkera berriak eman ziezten: batari griegoa, besteari latiña, ta orrela: guztitan berrogei ta amabosteraño, dio gure Corneliok, ta orrekin guziak nastu, elkar ezin aditu eta gizonak munduan banatu ziran: oiek berrogei ta amabost familia ziran. (*Corn. in c. 11.*)

Antziñako izkera zarren artean, guzien lenen, aurreneko ama ta asiera bezela, hebreoa beti kontatzen da, ta onegandik Syriaca, Caldeoa ta Arabigoa sortu ta jaio ziralta: Latiñetik Italiako, Ungriako, Frantziako ta Españakoa, eta besteak orrela: "*Hebraica matrix et genitrix, et Syriacae, Chaldaicae, Arabicae: Latina Italicae Valachicae, Gallicae, Hispanicae, etc.*" (*Corn. hic.*) Baña euskerak, gaztelaniak bezala, aietasun orren urkoa, nola dan umeakin amarena, ta latiñaren ume nola datekean, edo nondik bata bestearen antza duen, probatzea, orren erraz ezta.

Dana dala, antziñatik, orañ bezala, griego ta latiña beti estimatuenak izandu dira: eta, baldin latiñak eta griegoak berak itz. boz edo berba asko euskaratik artuak badi-tuzte, ondo klaru Aita Larramendik erakus-

ten duen bezala, euskera aiekin batean edo lenago zan señalea, eta izkunde lenen edo aurrenekoetatik bat euskara zala. Nola nai, zierto da, latin ta griegoak, batak bestea apañtzeko, elkarri eskua eman ta lagundu diotela, ta, lengoaje guzien artean, aureskua beti artu ta eraman dutela. Gizon jakintsuen artean beti ibiltzean oien zori ona egon da. Munduaren partetik agirienetan jakin dan geiena, griegoz ta latinez eskribitu izan da: eta, ainbeste libru ondo eskribitzeko ta oriek bear bezala irakurtzeko, esan edo itzegiteko, bietan erregla on asko eman dira.

Antziñako filosofo lenenak, erretorikoak ta, are geiago dana, Eleiza-gizonik andienak, maisurik jakintsuenak, Espiritu Santuaren argiaz gidatuak, beren zeruko libruak lengoaje bietan eskribitu zituzten: ala Ignaziok, Polikarpok, Justinok, Klementek, Tertuliano, Origenes, Zipriano, Laktanziok ta beste eskritore santuak. Eleizako lau Dotore griego, Atanasio, Basilio, Gregorio Nazianzeno ta Krisostomok, nola lau latino, Ambrosio, Jeronimo, Agustino ta Gregorio anaiak, ta oien ondorengo guziak. Au dudarik gabe ditxa andia da.

Izkunde estimatu oiek biak ere beren oreñak edo tatzak bazituzten len; baña gero, asko-jakiñen artean oi dana, egunoro ta obeto polikitu ta apañduaz biak joan dira. Orañ dakuskuna da, jakintsuen ta jakinzaleen izkera edo lengoajeak latiña ta griegoa dirala: ta latiñaren estimazioa are andiago da, zeren Eleizaren izkera santa dan, eta gure Fedeko libru sagradu guziak latiñez daukatzigun.

Gure euskerak bazter oietan orrelako gizaseme andien patu onik izan eztu. Baña latin ta griegoak asko-jakiñen ditxa ta gloria ori izan badute, bere modura marabilla txikiago ezta, baizik miragarrizko prodijio andiago, euskera, soll-soll, bakarrik edo nik eztakit nola, bizirik ainbeste sekuletan egondan ta dagoen: añ berez ta beregan, añ argi ta garbi, bere erio ta arerio guzien damu gorri gaixtoan badere. Alere asko, egieki, euskera galdu da. Baña ori ezta euskararen, ezpada euskaldunen desonra: bada oiek polikitu, apañdu ta edertu bearrean, lotsarik gabe berak beren nagitasunez itxustu, larrutu ta desegin izan dute.

Baña, gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jasotzea Jain-

koak nai du: gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskarak iraungo du. Esan oi dana: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskara ezin utzi edo kendu diteke. Jaungoikoaren borondate jakiña da, aren fede ta legeko misterio ezkutatu ta dotrina sabaltzeko bear dana, sazerdote jaunen ministerio sagraduetan, euskeraz baizik emen egin ta esan bear ez dala. Ta lengo aitzakiarik orañ edolarik ez dute askok: bada Aita Manuel Larramendik, neke gogor ta estudio esan al baño andiagoarekin, ezin izango ta ezin egingo zana bere Artean egiñik, eziñak ta nekeak lazki garaitu zituen, ta ori ta bere iztegi edo dizionarioa, maisuak bezala, eman dizkigu.

II

EUSKERAREN IZKERAK EDO DIALEKTOAK

Itsu-itsuan askok esan oi du, euskera asko dirala, edo erri bakoitzean bere euskara dala; baña zer dioten ez dakite. Ezta ori egia: euskera bat da. Euskara bat onetan, egia da, dialekto edo izkera asko dirala. Autore grabeetan askotan irakurten det griegoan bost dialekto ziradela: Atikoa, Aelikoa, Dorikoa, Jonikoa ta Komuna edo guziena. Onela bada, Frantzian, Nafarroan, Bizkaian, Araban ta Gipuzkoan, beren izkerak, bakoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta.

Onen gainean ere A. Larramendik, Artean ta Iztegian, guzia edo geiena, besteak ez bezala, erregla seguruakin erakusten du, bal-

din euskaldun jakintzalerik bada, eta oiek, Jainkoaren gloriari ta animen onari begiratuaz, orietan dakartzien abisoak ondo ikusteko pena edo neke puska bat artzeko gogoan badute: baña lastima da: libruak irakurten ta mesede edo onegiña ezagutu ta estimatzen baño, ezker gaiztoak ematen errezago da. Nere animako sentimentu edo miña da, etsaiak alde onetatik animetan egiten duen kaltea, ta, neke gutxi bat ez lau egunean artzeagatik, nagitasunez libru onak utzi ta asko beren jakineztasun edo ignoranzia itsuan betiko geratzea. “Noiz artean, —Dabid santuarekin esan dezaket— noiz artean, gizase meak, orren biotz pisua izango dezute? Zergatik banidade edo utsa asmatzen ta gezurra billatzen dezute!” (*Psal. 4.*)

Dialekto edo itzera oien gañean soseguz pensatzen duenak gauza miragarri ta ezin ukatuko dan bat arkituko du, eta da, euskaldun bakoitzak izkera zeñ era ta armonia ederrean gordetzen duen, edo dezakean. Nafarroan len ta oraiñ, bertako ta are geiago Frantziako libruen sokorruaz, nolerebait errazago beren izkera gorde izan da; baña, orrelako lagun gabe, alde oietan eta Bizkaian beren izkeran zeñ ederki iraun duten ikusteak, txit arritzen nau, ta edozeñ admi-

ra dezake: eta marabilla au ondo ikusi, entzun ta aditu gabe, ezin, ala fede, sinistu liteke.

Ainbeste milla anima edo gizon ta andrekin igaroko ogei ta ainbeste urteetan Probinzia oietan Mixioetan jardun bear izan det: eta egunoro ta geiago admiratu izan nau guzietako ta, ez gutxiago, Bizkaiko itzegiteko era ta armoniak. Besteak bezeñ ondo, ta gauzaren batzuetan bearbada obeto, izkeraren legeak an gordetzen dituzte. Guziok Señorioko, Nafarroako ta emengoa ondo bageneki, añ ederki batean, nola bestean ta iruretan, boz, itz edo herbaz usatu ta jokatuko genduke.

Gauza bi alere onen gañean ziertoa dira. Bata, Bizkaitarrak berak, askok beñtzat, gure dialektoan berenean baño predikatzea naiago dutela: eta Bizkaiko predikadore asko gurean predikatzerantz oitu edo egin dirala. Bestea da, an, ta emen ere, nik ez dakit nola, baña gizon geienak moldekaiz ta gogorkiago, eta andreak berenez poliki ta emekiago itzegiten dutela. Baña orregatik, ya dakus edozeñek, ala gizaseme nola emakumeetan, euskera beti bat eta berbera dala Gisa onetan edo bestean itzegitea, ferian

edo dendan erosten dan gauza ezta: bakoitzak bere dialekto edo izkerari jarraitu ondo: oitura, usu ta kostunbrea ala da, ta aurrera ere ala izango da.

III

ONDO ITZEGITEKO TA ESKRIBITZEKO MOLDE EDO ARTEA

Eskribitzen asi baño lenago munduan itzegiten zan. Baña ondo itzegitea ta ondo eskribitzea, guzia bat edo berbera deritzala, dio Quintilianok: "*Mihi unum, atque idem videtur bene dicere, ac bene scribere.*" (L. 12 C. 10.) Onetarako lenengo artea edo erreglak eman zituena, elokuenziaren Aita, edo ederki itzegiteko moldea atera zuena, Isocrates izan omen zan. (*Quint. L. 2 c. 15.*)

Gramatika edo molde au da: "*Ars emendate loquendi et scribendi.*" Esan nai du: solecismo, barbarismo, uts edo falta, gezur ta oker gabe, zuzen ta beren lekuan ondo itzak esatea edo eskribitzea: eta onetan Isocrates txit argi, zorrotz ta dilijentea izan

omen zan. Latinez itzegitea, ta arte edo gramatikaz edo onen erreglaz batean itzegitea, ezta guzia bat, dio Quintilianok: "*Aliud esse latine, aliud grammaticè loqui.*" (Lib. 1. cap. 6.) Ori bera orañ: erdaraz edo euskeraz itzegitea, eta arte edo gramatikako erreglak in ondo itzegitea, ezta guzia bat: eta bat eta berbera da arrazoia.

Ondo ta bear bezala eskribitzen ta itzegiten ikasi dutenak, Isocrates baten ta gero Ciceron ta Quintilianoren aletin bizi ta berezkirozko aien dilijenziai asko zor die: ori erreglak in erakusteko, A, B, C, edo alfabetoko letra guziak banaka ikusi, begiratu ta esaminatu zituzten. Berealakoan edo beñgoan guzia idoro etzuten, ta utsak betetzea ta sobrak kentzea asko kosta zitzaien: griego ta latiña ondo jantzi ta apañtzeko, edergarri asko billatu ta beren aletin guztia egin zuten.

Gero, edo onontzago, orañ milla ta laureun urte bezala, Eleizako Eguzki argi eder San Agustin bat onetarako bere lezio ta erreglak gramatikako libru bat eskribitu, ta gazteai A, B, C-tik asi ta erakusten jarri zan. Maisuen maisu andi San Agustin bat onezaz dediñatu etzan, ta onra anditzat artu zuen

neke au, Jainkoaren gloriarako ta animen onerako. Zergatik bada, euskaldunak orrezaz dediñatu bear dute? Onetan, neke gogorraz, Aita Larramendi batek jardun zuen, ta, berak dion bezala, ez bakarrik gure probintzia guztiz noblearen, ezpada Jainkoaren gloriagatik ta animen salbazioagatik, ta ori Elizako euskaldun maisu, konfesore ta predikadoreetan obeto seguratu ta errezago egiteko. Au bere marabillazko gramatikan egin zuen: obra on andia au, zerzaz pagatuko diogu?

Bizkaian, baita emen gure artean ere, sazerdote jaun asko ikusi ditut eskoletan obra on ori zelo ta arreta andiaz egiten: obra obeagorik errientzat ezin, ala fede. umeak ondo azitzea baño, egin dezakee. Argatik, maisu ta guraso umeai erakutsi bear dienak, ori ondo egiteko erreglak bearrago dituzte. Seme ta alabak txikitatik eskolan erdaraz ta euskaraz, edo guztitara, oitu bear dira, ta arrazoi gabeko lotsa beltz gaiztoa pisatu ta kentzera. Bestela, zer lotsa gaizto itsusiagorik, euskaldun galtzadun edo gizon egin bat, lau errengloi euskeraz ezin irakurririk, ez atzera ta ez aurrera, lotu-ta ikustea baño? Ta ori guzia, zergatik? Añ aisa ta erraz lau egunean liburu bat irakurtzen ez

ekin edo jarduteagatik. Lau eguneko ejerzizio piska batekin seguru, erdaraz bezala edo aisago, euskaraz irakurtzera egingo zera: egin ta irakurri, ta nekerik ta lotsarik eztago.

Emen guraso ta maisuak falta andi bat erremediatu bear dute, ta gure euskerari orañdaño baño mesede geiago egiñ: jendeen artean beste lenguaжерik euskera baño ditxa gabeagorik ezta ikusi, ta, gure jatorrizko edo jaiotzako izkera ez balitz bezala, ta euskaraz itzegitea pekaturik aundiena balitz bezala, giza artetik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo siñaleekin, azote ta kastiguakin, eragotzi nai dute: Zer erakeria itsuagorik au baño? Euskaldun prestuak, ez arren orrelako ofensarik zuen lenengo ta beti bear dezuten euskerari egin. Zuen juizioa non da? Euskalerrietan nola gauza onik izango da?

Araban nebillen batean, ango adiskide ta Erregeren guardietako kapitán baliente bategen beñ esan zidan: "Aita: nola Euskalerrietan umeen aziera ona ta bear dan dotrinarik izango da, baldin euskera ondatzeko alegiñ guziak egiten badira, ta gure mutiltxo edo aurrari bildur ta azoteakin euskeraz itzegitea eragozten bazaie? Oiek berak gero edo elei-

zagizon edo etxajaunak izan bear dute. Eta, guraso edo kurak diranean, nola, ongi premia dan bezala, beren etxe edo ergoienetan (erri txikiari onela Araban deitzen diete) do trina erakatsi ta konfesatuko dute? Nola beren familietako artu-emanak ta beste bear diran gauzak ondo aditu ta zuzenduko dituzte? Ikusten deguna da: gazteak latin gramatika ikasten dutenean, naiz Gaztelaniaz, naiz Frantzesez, naiz Euskeraz itzegiten dute, ta ori eragozten ez diete. Gramatikako maisu famatu bat gure egunean izan zan, latin gauzak ere euskaraz erakusten zituen: ta franzes euskaldunai gramatikako erreglak euskaraz adirazi ta erakusten diezkate. Ala, ez eskolan ta ez gramatikan, euskara beñere utzi bear ezta.”

Soldadu jaun onek arrazoi andia zeukan. Al datekean disparaterik bidegabeena da, euskera gazteai debekatu ta, madarikatua balego bezala, kastigatu ta eragoztea. Eskolan bertan erakatsi ordu onean, ta erdaraz jardun dezatela; baña gero libre, naiz euskeraz naiz gaztelaniaz: orrekin bietara egingo dira. Bestela Gaztelara gazteak badijuaz: an burla ta lotsa andien kostuan badere, erdaraz ikasten dute: ta nola euskera kendu zieten, ta jarduten ez duten, beren erri edo

etxeetara biurtzean, alde guzietara barregarriak oi dira: ta egiaz esan oi da: gaztelania ez ikasi ta euskera bai aztu. Gero emen lotsa andiaz dakuskuna: ez itz egiteko ta ez elkar aditzeko erdarazko ta euskarazko naspilla moldakaiz eta nazkagarri bat entzun oi da.

Bedeika nik dakidan maestra estimagarri errespeto andiko bat, bere grazia onarekin ta kastigu gabe ume inozente sei urtekoai ere, euskeraz, erdaraz ta latinez berdin, txit trebetasun andiaz ta ederki lotsarik gabe irakurten erakasten diena. Ojala ori bera maisu guziak egiten balute: mutil mutu lotu motel gutxiago errietan izango litzake. Baña utsegitean, oiei soseguz ta grazia onean, nola ondo irakurri edo esan bear duten, adirazi bear zaie, eta ez bildur ta ikarakin. Oitu bear dira, ez emengo izkeran bakarrik, ezpada edozeñ dialektotan, eta Frantzia edo Nafarroako edo Bizkaiko libruetan ondo ta trebe irakurtera. Onetarako diran erreglak ondo gordetzen badira, edozeñ euskera txitez beraa, suabe ta gozoa ertengo da: eta deadar, izu ta golpe gabe, ezpada onez, egun gutxian ondo esanzan, ederki ta nai bezala, irakurtera gure txikiak eta andiak egingo dira. Au gauza ziertoa da.

IV

ONDO ESKRIBITZEKO ERREGLAK (1)

Ondo irakurteko, lengo ondo eskribitu bear da: ta nola ondo eskribitzeak, asko laguntzen duen, ala gaizki eskribitzeak, ondo irakurtea asko eragozten du. Ta ondo eskribitzea, zer da? Orthographia griegoz, ta latinez, "*Recta scriptura, vel scientia recte scribendi*": zuzen edo bear bezela eskribitzeko jakindea, dio Quintilianok. (*Lib. 1 cap. 7.*) Juiziozko maisu, Jainkoaren zelua duenak, erraz dakus, euskeraren gramatikak zeñ arrazoi andiaz nai ta eskatzen duen, eskola-mutillak baño eskola-maisuak ori obeto jakin bear dutela, bear diran letrak in on-

(1) Aita Cardaberaz-ek emen diona konprenituko bada, arek bere liburuak erderazko ortografiaz idatzi zituala gogoan artu bear da.

do eskribitzeko erreglak berak obeto ikasi ta aurrai arretaz edo kontuz erakusteko.

Usadio txarrai berneak ebaki, esan oi da: ta alferrikako letra asko utzi ta, itzez esaten edo aoz pronunziatzen dana garbiro eskribituaz, obeto ta errazago azertatuko da: onetara oitu ta egin, ta gogotik ekin, ta laster, lau egunean orretara egingo zera. Bata ta bestea oiturak dakar: oiturak dakar erraztura. Askok, ez bear dan ta itzegiten dan gisa, ezpada buru gabe ta nola nai eskribitzen dute, ta argatik nekez ta gaizki irakurtzen da. Gauza zierto ta egia bera da, juizioa duenarentzat, euskeraz eskribitzea ta irakurtea erdaraz ta latinez baño askoz errezagoda. Euskerak beste lengoajeak baño erregla gutxiago, seguruago ta askoz errazagoak ditu. Egia au, nai badezu, laster argiro ikusiko dezu.

Latin ta griegoak ere, Ciceron ta Quintilianok diotenez, lenago tatxa asko zituzten: gero, oarkari jakintsu oien bien erreglakin gauza askotan polikituaz, beren era eder edo primorean geratu ziran. Baña nola? Eziu kontatu alako erregla ta abisoakin. Bedeika gure euskera ! bego deritza: zer du zer ikusi? Onetan pribilejiatua da: erregla gutxi, baña seguruagoakin kontentu da.

A, B, C-ko letretatik maisu orien ta San Agustin baten gisa, guk ere euskeran asi bear degu. Munduan lendabiziko letrak asmatu edo idoro zituztenak, Cadmo ta Evandro izandu omen ziran. Latiñean amasei letra jakiñak ziran: gero besteak billatu, ta orañ bear dituenak baditu: euskeran orobat ikusten da. Besteren batek, nik baño osasun ta leku geiagorekin euskerazko gauzak obeto moldatu artean, erraz ta ondo eskribitzeko urrengo erregla oiek zuk gorde itzatzu:

1 Erregla: *A, e, i, o, u*: bost letra oiei bokalak derizte. Bokalak esan nai du, aoz bera esateko, beste letren bearrik ez duena, eta bera bakarrik berez esaten dana. Bost letra oriez euskera txit asko baliatzen da.

2-en erregla: *A, B, C*, edo alfabetoko beste letrai konsonanteak derizte: esan nai du, ez berez edo bakarrik, baizikan bokalakin batean aoz esaten diranak.

3. Konsonanteen artean batzuek semibokalak, besteak mutuak dira. Mutuak, edo aoz esateko ots gutxi egiten dutenak, zortzi oiek dira: *B, c, d, g, k, p, q, t*. Semibokalak, edo aoz esateko bokalen gisa diranak beste zortzi oiek: *F, l, m, n, r, s, x, z*. Oiek

dorea, egsaminatu, naiz esaminatu s batekin ondo csaten ta eskribitzen da.

8. *H, h. Atxea* letra dan edo ez, autoreen artean eztabaida andiak dira. Naiz letra naiz aspirazioa dala, edo beemenziaz soñu gogorra ematen duena, emen gure euskeran ta Bizkaian, *atxe* ori alfarrikako edo serbitzen ez duen gauza da. *H* ori izketan batzuek *Ge*, besteak *Jota* egiten dute. Guk orrelako aspirazio begemente edo behementerik usatzen ez degu. Abrahan esateko, Abrajan diote. Ken ortik: gure euskera suabe eztizkoarentzat soñu ori ezta.

9. *Cha, che, chi, cho, chu*, euskerak txit askotan du: ta ementxe, ta onetantxe bai *atxea* ondo datorrela. Achaz, Achim. Ezechiaz, Joachim, ta Eskritura sagraduko Hebreoen orrelako izenak, *ch* orren, *c* edo *q* bakarraz eskribitzea euskeraz, aurrentzat obe da: Acaz, Aquin ta Joaquin: ta libru berrietan Joaquin dator.

10. *Q, q*. Onen berririk antziñakoak etzuten, ta *qu* zer zan etziequiten: ta gero ere nekez artu zan. Quintilianok (*L. 12. c. 10*) zion, *qu* esatean, beste letra edo silabak latzak eta gogorrak biurtzen zirala. Latinak *u* erantsi zion, eta bere erregla du:

“*U sequitur post q semper, semperque liquescit.*” Biz ordu onean, eta gorde beza; baña alako *u* edo letrarik ezpalitz bezala, beti jan, utzi, urtu, edo desegin bear da eskribitzen dan *u* ori. Latinari euskerak jarraitzen dio onetan: *ca, que, qui, co, cu,* esaten dan bezala eskribitzen du.

11. *J, j. Jota* euskararena ezta, baizik erdaratik artu edo etorria. Euskalerrietan len *ia, ie, io, iu* esaten zan: ta orañ ere Bizkaian askotan esaten da: *ian, iauna, monia,* ta ez jan, jauna, monja; au erantsia da.

12. *U, u,* bokala deritzana, euskerak usatzen du; baiña *V, v,* latinez konsonante deritzana berez gutxi bear du. Euskerazko itzetan, orren lekuan, *B, b,* esateko ta eskribitzeko errazago ta obeago du. A. Larremendik ondo dio, euskerazko itzak beren jatorrizko sustraiean ez *v,* ezpada *B, b,* dutela: *bat, bi, baliente, beemente, bera, beraa, suabea, gobernatu,* ta besteak. Ori bera izengañetan edo apellidoetan, Etxabe, Etxeberria, Mendizabal, Zubimendi, Zabila ta Cardabera, bere Dizionarioan dakar, eta orrela besteak; guzia *be* arekin: eta aurrentzat irakurten ta eskribitzen ikasteko, erregla au askoz ohea da.

13. *N, n: ene* fuerteari berez duen indarra kentzeko, euskerak du *ña, ñe, ñi, ño, ñu*; erdaraz Año, daño, dueño, Señor duen ta dion bezala. Askok aurretik *i* bat usatzen du: baña *i* ori utzi, ta orobat edo berbera da; baña, baño, beñ, gañean. Aiño, daiño, dueño, Señor eskribitzen ezta: baiña. baiño, beiñ, zertako? Obe da baña, baño, etc.

14. *S s,* fuerteari bere indarra kentzeko, erregla ori bera gorde bear da: euskerak *ña, ñe, ñi*, duen bezala, aoz esateko ta eskribitzeko du *sa, se, si, so, su*: eta onela *x* edo *ekisaren* bearrik ez du. Auge, orige, onelage, orrelage, Eleja, gajoa ta beste onelakoak, indarra kendu ta errezago dira: ause, orise, asea, Elesá, gasoa. Bizkaian onelako asko da, emen ere bai. Oñatin *azeria*, edo *aizaria, aseria*, edo *asaria* diote, eta orrela eskribitu bear da. *T, t,* fuertearekin ori bera egin diteke. Nafarroan ta emen ere *t* suabeago egiteko *tt* bi orobat eskribitzen dituzte: Atta, gutti, egitteko, dittut, dittugu, etc., *ta, te, ti*, anbat da. *Tata*, aur bati esateko, *ta ta*, edo *tta tta* suabeago esaten edo egiten da.

15. *Ele*, edo *ll* biñaka indarra kenduaz

dizio edo itzen erdian askotan ditugu; itzen asieran: *lilluratu*, *lillura*, edo begiak illuntzea, *lloba* ta *llobaidea*, besterik ez dakit otedan. Euskeraren gauzaren batzuen gañean, A. Larramendi bera ere, erakusten dituen gauza ta erreglaren batzuez kontentu ez oi da: ala beñ baño geiagotan berak esan dit: eta, Aita Manuel batek au dionean, besteok, zer esango degu? Ala Probinzian nola Nafarroan, eta are geiago Bizkaian, itzegiteko edo aoz esatean, itz asko laburtzen dira, baita letra asko trukatu ere: *b*, *d*, *f*, *p*, *t*, bata bestearen lekuan: ala bekatua, pekatua; farrez, barrez; ifiñi, ipiñi, ibeñi; ofizio, opizio: alferrik, alperrik: ezda, ezta: ezdet, eztet, eztezu, eztu; ta orrela beste asko, baña jakiñak ta errazak. Uso ta kostunbreak guzia erakusten du.

V

ONDO ITZEGITEKO BESTE ERREGLAK

Edozeñ lengoajetan itzegiteko, aoz esan edo pronunziatu, guztia bat da: eta aoz esaten dan bezala eskribitzea, eta eskribitzen dan bezala guztia irakurtea, erregalia aundia da. Au beste izkundeak ez dute; baña euskerak bai.

Letra biñakakoen gañean erregla segurua: *ll* bi ta *rr* bi, bere dizio edo itzen erdian euskerak txit askotan ditu: ta geienez berez. oriek biak bakarrik bai, ta beste biñakako letrarik batere eztu. Latinak puntuan beñ *bb* bi, *cc* bi, *ff*, *gg*, *mm*, *nn*, *pp*, etc. biñaka ditu: Abbas, accuso, addo, etc. Orobat gaztelaniak: Accion, leccion, etc. Euskerak, naiz birekin naiz batekin: Leccio edo lecio, erdaratik irakurteagatik, esaten ta es-

kribitzen du. Latinak orretan bere erreglak baditu. Euskera ariñago ta aisago dabill, ta esan dan abisoa bai, baña besteen nekerik ta bearrik eztu.

Itz edo dizioaren batzuetan, nola diran —esannai, eginnai, jannai, joannai—, *nn* bi, batean dirala dirudi; baña orrela eskribitu arren, edo lasterka batean aoz esan arren, biñaka itz batean ez dira, ezpada bitan: esan nai, egin nai, eta orrela besteak.

Beste erregla jakiña: *b* ta *p*, aren aurretik *m* eskribitu bear dezu, ta ez *n*: ala ambat, zambat, amparoa ampolla, ta orrela besteak esan ta eskribitzatzu.

Askorentzat nekea dirudi; baña juizioa duenak nekerik batere eztu, esaten dan bezela eskribitzean: *tza*, *tze*, *tzi*, *tzo*, *tzu*: *tsa*, *tse*, *tsi*, *tso*, *tsu*. Euskalduna bazera, alerik oartu gabe, ta alakorik ezpalitz bezala, neke gabe, zuk itzegitean, or eskribitu dan bezala, beti esaten degu. Aita Larramendik arrazoiaz ta ederki diona: *tza* edo *tsa* orretan, *t* eta *z*, edo *t* eta *s* ori, urrengo bokalarenak dira, ta, zuk aoz biziro esanaz, edo *t* eta *z*, edo *t* eta *s*, golpe batean bezala, pronunziazio edo esaera grazioso edo soñu onekoa egiten da.

Ta, egiak balio badu, beste linguajeen aldean, ori ta orrelako beste itzak eskribitzea edo esatea, zer neke da? Otza, biotza, otsa, otsoa edo stringo, strangulo, strictura, structura, edo orrelako spectroak esaten. errezago zeñ da? Zenbat errazago da eskribitzea ta irakurtea: Atsa, aberatsa, atsoa, atsegiña, otsa, otsoa, utsa: atza, atzezin. atzo, otza, artza, artzaia, utzia, ta beste onelakoak. Nola itzegiten, ta neke gabe esaten dituzun, ala egun bian eskribitzera ta irakurtera oriek eta orrelako, aisa ta nekerik alerik gabe, egingo zera, ta erdaraz edo latinez baño errazago. Apaiz asko txit erraz eskribitzera nere konsejuz egin dira: zu gutxiago etzera, ta bearbada obligazio geiago dezu.

Zure Jaungoikoarekiko dezun obligazio au ondo ezagutu, ta orri ondo erantzun nai badiozu, aren onrari, zure onari ta Jaunaren borondatea egiteagatik, anima askoren probetxuari bear bezala begiratu nai badiozu, besterik bear ezta, ta besterik eskatzen ez dizu, ezpada fede ta gogo onaz borondatea puska bat, eta egun gutxiago neke arifñ bat: asitzea kostako zaitzu ta, bereala, orañdaño-ko mamu izugarri ta egiatzko iduripenak, es-

kuaz bezala, kendu ta aienatuko dira. Orañ
euskeraren Gramatika ederra ikustera goa-
zen.

VI

EUSKERAREN ARTE EDO GRAMATIKA

Munduak ikusi duen mirari andi edo marabilla guztizkoetatik bat, dudarik gabe, Arte au da. Onek, ez gizonen, ezpada Aingeruen beargaia zirudien: eta orañ egiñik begiz ikusi, ta alere ezin datekeana dirudi. Jainkoaren milagrozkko obra bezala da: ta libru au eskuetan iñoiz ere artzen ez det (ta askotan artzen ta irakurten det, ta geiago ta obeto, al banu, nai nuke) miretsi ta Jainkoa alabatu gabe. Berari milla esker, zeren Aita Larramendiri berezkirozko bear ziran argi andiak eman ziozkan, gramatikak dituen bazter guziak ondo barrendu, eta bere Arte preziosoan euskaldunai agertzeko. Lan aundi onetan, ez gizon baten, ezpada asko-

ren burnigita edo muellerik sendoenak eten, urratu ta desegin zitezkean.

Alabantza guzien gañeko ta neke guzien eragiñen ta izugarrien au ondo ezagutzeko, gramatikaren parte ta erregladi guzien berrri ondo jakin bear da: eta Artea, eskuetan artu orduko, utziaz, ezer egiten eztegu: beñ ez eze, askotan soseguz ta kontuz irakurri-ta ere, barrendik ondo aditzeak lana ta errua du. Au neke andia da. Juizioaz justizia egiteko ta arrazoiiaz sententzia emateko, gauza edo kausa lenago ondo ikusi, aditu ta ezagutu bear da, ta orretako, Jainkoaren argiaz, euskerari, dan bezala, begiratu ta egiari leku eman. Jainkoak arren itsuak argitu ta mutuak eskatu ditzala: gure artean askok ondo premia daukate. Bestela, Jauna, alper da María makillatu etc. Euskaldun alper ajolakabeai esan dakieke: Astoaren aorako ezta ezta, baña bai belarra.

Gauza ziertoa da, gramatikak dituen zortzi parteak, esamenik al datekean estuenaz, maisuen maisuak bezala an ematen dituela. Zortzi parte oiek Latiñez dira: "*Nomen, Pronomen, Verbum, Participium, Praepositio, Adverbium, Interjectio, Conjunctio*": ta Euskarak orrela beste zortzi ditu: "Ize-

na, Ortizena, edo Prononbrea, Verbo edo Eraskitza, Partizipio edo Partartzea, Preposizio ordean Posposizioa du edo Beitematea, Verboari darraizkana edo Adverbioa, Interjezio edo Ezartea, ta Konjuzio edo Itsaskida, zeren parte bata bestearekin lotutzen duen.

Zortzi parte oiek bakoitza bere lekuan Arteak ederki adierazotzen ditu: ondo irakurriaz ta gogotik ekinaz, erraz aditzen dira. Oriek guziak, uso ta kostunbreaz jakiñak dira euskaldunen artean, ta Arte gabe edo berez. Latiñak *cum* preposizio edo aurretik dijoan bezala, euskerak *kin* posposizio edo ondorengoa txit asko usatzen du. Orren lekuan Bizkaian dute *gaz*. Eskola-mutil bi beñ batean, euskeraren gañean, beren eztabaidetan ikusi nituen. Bata Bizkaitarra, ta beste Gipuzkoarra zan. Beren modura aserratu ziran, ta ezin besterik egin, ta deadarri biak eman zioten: Bizkaitarrak deadar: *Kin, kin, kin*; ta Gipuzkoarrak: *Gaz, gaz, gaz*: eta ondo aspertu ziranean, bereala pa-keak egin zituzten.

Beste parteak, Berboaren aldean zer ikusirik eztute. Onen konjugazioa edo erabidea guzia bat da, ta berari dagozkion denbore-

tan itzegiteko banaka erabiltzea esan nair du. Orren jirabuelta ta era askotako ainbeste aldaera miragarriaz, iru dialektoetan zer armoniazko musika gozoaz ta eskualdi zeñ zabalaz berboa batetik bestera darabillen ta jokatzen duen ikusi edo entzuteak, zora de zake kristaba: eta A. Larramendik onetan bere buruari ta alegin guziai gañez eragin zien. Konjugazio oiek iskilimia paregabea dira: eta euskeraren marabilla, ta nekea esan diteke onetan dagoela.

Neke puska da: I. — zeren *tza, tze, tzi*, esateaz gañera, askotan itz batean oriekin *izka, izki, ozka* ta orrelakoak arkitzen diran: *Esan giñizkitzuten, egin giñizkitzuten* ta oriek bezala. II. — Itz batean euskerak askotan lau gauza, edo persona bi, berboa ta gauza esaten ditu, ta txit luze egiten da: *janizangiñizkitzuten*. Obe da bakoitza apartatzea ta eskribitzea: *jan izan* etc. Orrela irakurteko begiak ez dira izutuko. III. — *Los, las*, erdaraz bezala euskerak eztu, ta ala euskaldunak askotan utsegiten dute: artikulo oriek euskerak berboan daramazki. Erdararekin euskera ez aide ta ez bernaje da. Bere era edo gramatikaren parteak usatzeke moduan latiñaren antz geiago du: ta ikusten degu, euskaldun gazte askok, gartzela-

niaz baño lenago, latinez, ta obeto ikasten dutela. Euskerak neke oiek beste lengoajeak berenak bezala baditu ere, bere alibio ta erregaliak ere baditu.

VII

EUSKERAZKO GRAMATIKAREN ERREGALIAK

Zer dion ez dakienak, nai duena esango du, baña juiziozko jakintsuak, dudarik gabe, egia ezagutu ta aitortuko du. Besteen aldean euskerak erregalia ta pribilejio andiak ditu: I. — Jenero ta preteritoen naspilla edo iskanbillarik, besten gisa, euskerak ez du. Ainbeste erreglarekin gazteen buruak tormentatu, eta geroenean, zer probetxu? Beti kezka, beti arazoa: ta, betiko ejerzizio ezpada, bereala oriezaz aztu. II. — Izen edo nominatiboetan, zer lanak ez dira? Latinak onela, griegoak ala. Bedeika gure euskera: bere sei kasoetan erregla jakin ta errazak beti bere ofñean firmeak ditu.

III. — Ori bera bere gramatikaren beste

parte guzietan seguru gordetzen du: eta au, euskera lasterrago ta errazago ikasi ta ondo itzegiteko bentaja andia dala, edozeñek dakus. IV. — Latiñez Superlatiboa ta euskeraz Guzizko edo Txitezko izena deritzana, guk era bitan degu. Bata itz batekoa, ta bestea bikoa. Itz birekin egiten danak adberbio oiek: txit, txitez, guziz edo guziz daramazki: txit ona, txitez santua, guztiz ederra, guziz galanta. Itz bateko Superlatiboa, izen bakoitzari *en*, bere ondoren erantsiaz, egiten da: onena, santuena, ederrena, galante-na. Jaungoiko onena andiena, *Deus O. M.* latinak bezala, esan diteke: baita gizonen andiena, guzien gogorrena: guzietatik txikiena: baita, guzien artean santuena ere. Ederrisimo, galantisimo ta onelakorik euskerak ez du.

Egia da, A. Larramendik bere dizionario edo iztegian aldareko sakramentu guziz santuagatik, latiñetik santisimoa dakarrela: ta uso ta kostunbreak, Trinitade santisimoa ta Ama Birjiña Santisima, euskera bezala egin duela. Alere, sakramentu guziz santua ta Ama Birjiña txitez santa, añ ederki da. Ama Birjiña, euskaldunak diona, Jainkoaren Amaren epiteto, titulo edo osansi ta alabanzarik ederren andiena da, zeren Jainkoaren Amak

bai, ta bestek pribilejio ori ez duen. Euskaldunak konturik egin ez dute, ta ez arreteman edo aplikatu, ezen euskerak berez edo berariazko izen andigarri edo titulo ederrak, ta beren izenai erantsi ta txit ego-kiro, Jainkoari, Ama Birjiñari ta santuai ondo dagozkienak baditu. Ara nola.

Jaungoikoari, ta aren atributo edo perfezio esanezgarri edo inefableai dagozkienak dira: Jaungoiko guziz ona, altu, jakintsu, santu, justu, betikoa: guziz aberats, eder, gozo, ugari, liberal, ongille, eman-nai, emallea: Aita maite, maitagarri, maitetsu, urrikaltsu, beraa, piadoso, amorosoa, etc.

Jesukristori dagozkionak dira: "Jesus gure Bide, Egia ta Bizitza, Zeruko atea, gure Jaun ta Jabea: gure animen Artzai ona, gure Redentore, Salbadore, Bitarteko ta Maisua: gure Aitarik onena, Anai nagusi, Aide ta Adiskide laztana: gure bideko Gida, Lagun ta Kapitan, edo Burua: Grazia guzieren jatorrizko iturria, gure biotzaren Bizitza ta Biziaren Biotza, Graziako Biziaren Anima, Animaren Espirituaren izan ta substantzia: munduaren Argia, Justiziazko Eguzkia. Anima garbien esposa maite, Jainkozko mo-

dura enamoratua: gure Osasun ta Ondasun guztia ta Gloria bizia.”

“Salomon paketsu ta Pakegillea, Konseju andiko Aingerua; Sazerdote andi, Pontifize edo Aita Santu betikoa: Aita Eternoaren Ontasunaren antz edo imagiña egin-egiña, aren Gloriaren Edertasuna, ta aren substantzia edo egiazko Izatearen itxura: birtute guzien asiera, doai guzien Jarlekua, Arri bizia, Argi ederra, Iturri ugaria, Ur gozo bizia, ta jakindea ematen duena: Arkantoi bietatik bat egin zuena. Bildots kulpa gabea, ta Arkume munduko kulpak kentzen dituen.” Oiek ta Eskritura Sagradutik ateratzen diran beste onelako izen ta titulo eder asko dira: ta euskaldunentzat gauza berria badirudite ere, Eleizako, Dotrinako ta Jau-naren, eta santuen alabantzarako, latinez bezala, euskeraz baliatzeaz lotsatu bear ez-ker. Noizbait asi bear da, ta beste lengoa-jeak bezeñ arrazoi berdiñ edo andia, ta de-retxo jakin egiña degu guk edo euskerak.

Onela Ama Birjiñaren, Aingeru ta san-tuen izen berai ederkien datozkienak, san-tuetan Jainkoa bear bezala alabatzeko, ate-ra edo egin bear dira. Bidez emen guraso ta maisuai erregutzen diet, beren etxe ta errie-

tatik deserritu ta gaistoen itzkuntzak onda ditzatela. "Jesus demonioa" ta onelako beste itzkuntza eta ezkontza infernuko itsusiak, euskaldun ondo azi diranen aoan zeñ gaizki diruditen! Jaungoiko gizon egiazko, gure salbadoreak duen izenik andien, adoragarrien ta gozoena, ta, San Pablok dion bezala, izen guzien gañeko izena da JESUS, eta, Espiritu Santuaren grazia gabe, bear bezala, JESUS ezin esan, ezagutu ta adora diteke, ta askok mafia gaiztoa artu ta orrela itzegitean Jauna ofenditzen dute.

Beste askok, gizon bat ezertako edo askotan gaia dala, edo agudo bat dala, esateko gaztelaniatik artu ta balentiaz bezala "ori, edo urlia demonio bat da" diote. Jojou! A zer alabantza, etsairik andienaz bat egitea! Eta onela izkuntza gaistoaz askok gala egiten dute. Onelako esaerak kristau euskaldunetatik aienatu bear dira, ta kristabari dagokion juizioaz itzezin bear da.

Substantibo edo berez bakarrik esaten dan izena, ta adjetibo edo beste izenari erantsi ta darraiona, dirade, ta usatzen ditugu: Jaungoiko santu andia: ta itzoro Jaungoiko dibinoa esan biar ez da, zeren izen biak bat esan nai duten: Substantibo berekiko izenak

erantsi ta elkarrekin batean esatea, euskera-
ren pribilejioa da, orañ urrenean A. Larra-
mendik esan zidan bezala. Ta ala: zalbide
edo zaldibidea, gurdibidea, oñ bidea esaten
da: ta orobat: kristaubide, kristau fede,
kristau lege, kristau dotrina ta kristau bi-
zitza.

Diptongo ta triptongorik euskerak bere
itzak irakurte edo eskribitzean eztu, ta erra-
zago ikasteko au ere erregalia da: iru dia-
lektoetan sinkope edo itzak-laburtze txit as-
ko ditu. Azkenik asenta dezagun, ondo itz-
egiteko bear diran gramatikaren parte gu-
ziak euskarak usatzen dituela, ta banaka go-
ra-bera ta aldaera guzietan, berariazko izke-
rarik egokien guziak, legerik zorrotzen guz-
tien damu gorrian bada ere, ta beste izke-
rak ez bezelako neurri justu ta simetria
egĩñ-egĩñean, era guzietara ditu, ta euskal-
dunak dakizki ta darabiltzki.

A baña, —dio norbaitek—, euskerak naia-
gatik latĩñ edo gaztelaniaren itzegiteko ele-
ganzia edo edertasun ta erretorika edo elo-
kuenziarik berez ez du! Ola, adiskidea,
oriek ere baditugu? Ai gizagaxoa! Zer dio-
zu? Gaitzak eragin al dizu? Ala fede, zer
gaitz andiagorik, jakiñ-ez itsua baño? Igno-

ranzia edo jakin-ez triste onetan euskaldun asko arkitzen dira, ta orrek gañez éragin ta itsu-itsuan zer dioten ere ez dakite. A don-tsua! Erretorika zer dan badakizu? Non edo zertan dagoen ezagutzen ote dezu? Ara bada ikusi ezazu.

VIII

EUSKERAZKO ERRETORIKA NOLA DAN

Erretorika zer da? "*Ars vel doctrina bene dicendi.*" Quintilianok (lib. 2. c. 15.) dienez, ondo itzegiteko Arte edo dotrina da. Erretorikaren arte onek, ondo itzegiten erakusteko erregletan, bere edergarri edo itzaldiaren apaindurak, tropo ta figurak deriztenak, ditu: oiek itzen aldaera edo batetik bestera aldatzeko moduak dira. Tropoak, autoreak diotenez, berez itzetan, ta figurak gauzetan aldaera ori egiten dute, edo berenezko sentidurik beste batera mudatzen dira. (*Quintil. lib. 9. c. 1.*) Tropo edo aldaera, batzuetan itz batean, metafora deritzana bezala, egiten da: besteetan, itz askotan edo itzaldi osoan, alegoria deritzana bezala.

Figurakin itzak mudatzea, Artearen erreglak in ta ederkiro beren lekuan itzak ifintzea da. (L. 9. c. 1.) Figura batzuek itzetan, besteak sentenzietan dirade. Diran guzietan kontu, banaka ta txit ederki Ciceronek ematen du: (3. de Orat.) Eta au da lengoaje guzietako erretorika, ta onen erregla jakin guziak lege oietan sartzen dira. Euskaldun askoren jakineztasun edo errore itsua txit andia da, ta uste dute, erretorika eta onen erreglak ta armonia ederra, latiniarentzat baizik, edo euskerarentzat ez dirala.

Jakizu bada: I. — erregla oriek euskeran, beste lengoaje guzietan bezala dirala, ta gure izkeran tropo ta figura diran guziak aña ederki datozela, nola latinietan ta beste edozeñ izkundetan: ta arrazoiaren argia buruan duen gizonen euskarari au ezin ukatu dio. Jakizu II. — Artezko edo erreglakiko erretorika baña izatezko edo bakoitzak bere naturalezako duen erretorika lenago dala. Argatik Quintilianok aña argiro esan zuen: (L. 2. c. 17.) "*Omnia quae Ars consumma-verit, a Natura initia duxisse.*" Arteak bere erreglak in akabatzen duen guzia, naturalezatik edo berezko izatetik asitzen dala. (L. 3. c. 2.) "*Initium dicendi dedit natura, initium Artis Observatio.*" Itz egiteko asiera

Naturalezak, Artearen asiera oarrak edo obserbazioak eman zuela. (L. 2. c. 19.) “*Natura etiam sine doctrina multum valebit; doctrina nulla sine natura esse poterit.*” Arte edo dotrinak bere gaia naturaleztatik edo berez bear duela; bestela ezer balioko ez duela, edo ezer izango ez dala.

Arte gabeko edo berezko erretorika naturala nola dan, obeto erakutsiko dizute, estudio ta eskola gabeko emakume bik: bat Gipuzkoarra, bestea Bizkaitarra, zeñai kontu grazioso bi ziertuak, orañ esango ditudan bezala, igaro zitzaien.

Andre Donostiarraren Erretorika

Beste erre kardari asko oi dabiltzan bezala, au batetik bestera bere gauzak saltzen edo tratuan zebillen. Erri batean, ala bearez, galai gazte batekin topatu zan: eta ikusi ta ezagutu zueneko, abegor txit gozo ta agasajo txit andiak egiten asi zitzaion: “Ai au enkontrua! Ziña ta bedeika! Au galai! Au joia preziatua! Auxe bai gure Donostiako semea degula!” Onela beste milla edertasun gazte orri esan ziozkan.

Arako beren tratu-gauzetara etorri zira-nean, orra non gure galaiak eskeñi txarren

bat egin, ta bear etzan moduren bat erre-
kardariari erakutsi, ta biak aserratu ziran:
ta tortilla goitik bera irauli, ta andrearen
beletak jirabuelta ariñ eman, ta gaztearen
kontra biurtu, besoak gerrian ifiñi ta desai-
re guziak esaten asi zitzaion: “Nere jende
onak, zer ikusi bear ote degu? Zer eskeñi
degu au, edo nork egin digu? Oni begira:
au nongoa ote degu? Onen patxadari begi-
ra! Ea: ken orpoetatik, koartean bosteko es-
tanpa: ken gure begietatik: ez guri beñtzat
orrelakorik. Au nor degu? Gu español pu-
ru-puruak. Au nongoa dan ez dakigu. Gure
aita ta ama frantzesak ziran: baña gu espa-
ñol garbiak, San Bizenteko Pontean batea-
tuak. Jende onak: au zer degu? Ken ortik!
Ai au kontua! Deabruak ikusi du golillare-
kin astoa.”

Eta onela beste gauza asko, edo aora ze-
tozkionak ausardia andiarekin esan, eta ga-
lai ori lotsaturik utzi zuen: eta estudiantea
bazan ere, bere legeak eta erretorika andrea-
renak ondatu ziozkan, ta bereak eta geiago
aditu, ta geiagoren bildurrak ixillik iges egin
erazo zion.

Andre Elorriarraren Erretorika

Au, ontzia bela betean bezala, bere ibikiakin zebillen errespeto andiko bat zan. Eta zeren kontuak, nere gustoko, ta berezko ango euskeraren grazia andia duen, Bizkaitarra banintz bezala aien gisa kontatuko det.

Bizkaiko abade jakitun batek bere lloba bat erriko etxandera baten seme bakarragaz ezkondu gura eben. Baia andreak ikusirik abadeak eskintzen eutsan dotea, bere etxaguniteari eta onek zituban obligaziñoai erantzuteko adiña etzala, al egian modurik onenean eskusau iakan. Orregatik bere sazerdote iaun onek beti dote laburra opa eutsan, gero geituteko ustez; eta adietan emon gura izan eban bere llobeak zituban aido aberatsak, eta aetatik uste zituban urrezko mendiak edo ondasunak, eta etorkizun onen errezkada luze bat txito ederto kontadu eutsan.

Etxandera zindoak epe galantagaz guztia entzun, eta azkenean sazerdoteari modu onetan esan eutsan: “Eta, Jauna, zure mesedeak etorkizuna bazau?” “Ez, andrea.” “Bakizu etorkizuna zelangoa dan? Zuria ala bal-tza dan?” “Ez, andrea.” “Etorkizunagaz ian, edo edan bozu, edo beragaz bizi izan baza-

ra?" "Ez, andrea." "Bada, Jauna, etorkizun-
nen barri obagorik eta segurubagorik ezpo-
zu, zu geldi zaitte zeureagaz, eta ni bere ba-
noa neureagaz." Eta orrenbestegaz abade ia-
kitun ori ill otza legez gogortu ta mututu-
rik andreak itxi eban.

Orañ bada izenezko euskaldun ta sustan-
zia gabeko aizez beteak, esadazute: nondik
Donostiar ta beste Bizkaitar onek izkunde
dontsu eta erretorika añ bizi ta egokia ika-
si zuten, edo nork erakatsi zien? Ez egieki
zuen burutik, edo zuen erreglakin, baizikan
Jainkoaren doaiez, berenez, edo naturale-
zaz. Lenago esan det, ta orañ herriz diot,
euskeraz, erdaraz edo latinez itzegitea, ta
bear diran erreglakin ondo itzegitea, guztia
bat ez dala. Orañdik urte bi ez da, au nero-
nek, soldadu batekin igaro zitzadan egiazko
lanze batean, gusto andiarekin ikusi nuela:

Soldadu Baten Izkeria Preziosoa

Nadasti jeneral zarra, ta gerra bizi oietan
Prusianoaren persegidore latza serbitu zu-
en txit doai oneko soldadu bat topatu nuen:
bera Turkiaren ondokoa, ta latinez bere iz-
kundean bezala jarduten zuena; baña latin
bat añ graziosoa, non da bera aditzea atse-

gin andi bat ematen zidan. Estudiorik zuen galdetu, ta etzuela esan zidan. Sazerdote, askotan ta luzaro nerekin latiñez itzegitera oitu batek eta nik, gure erreglakin latiñez itzegiten, eta guztia aditzen zigun. Baña be-
ra, estudio eta erreglarik gabe, añ askatu, añ trebe zegoen, non aditzera txit ondo ematen zan: puntuan beñ solezismo ta barbarismo galantak botatzen zituen, baiña alakorik ez balitz bezala, farra egin ta eragiten zigun.

Argia ikusten badezu badakutsu, kristaba, soldadu ark latiñik libruetan ikasi etzuela, baña orregatik latiñez itzegiten zuen. Ori ark bereztarra edo jaiotzako izkera zuen; guk ez. Latin ura ezer kosta gabe zekien, guk ez. Zer falta zitzaion bada? Artea, edo onen erreglak. Gure Izarrizko arri nabar edo jaspe ederrakin emen Loyolan gertatzen dana. Arri andi bat arrobotik badakarte. Maisu Iberok erdi bi egitea agintzen du: erretablorako bear duen puska bata, bere erreglak eman, ta berdinditzea, landutzea ta leundu edo bruñitzea agintzen du. ta ispillu baten gisa txitezko ederra geratzen da: beste puska moldakaitza landu ta polikitu gabe, bere artan geratzen da, edo an datza.

Orra bada gizon asko nola diran. Guziak gaiak dira, baña asko izkunde eder edo elo-
kuenziaren erreglakin landu ta bruñituak
bezala: beste asko erregla gabe beti molda-
kaitzak geratzen dira. Gizon gai ori landu
ta leunduko bada, maisuaren erreglakin lan
egin, ekin ta ekin bear da. Au edozeñ len-
goajetan, ikusten dan bezala, orobat da
Erretorikaren Artea naturalezari laguntzeko
da: berezko izkundera bakoitzagan molda-
tzeko ta polikitzeko da: itzak noiz era one-
tan, noiz bestean, noiz estutu edo gutxitu,
noiz lasaitu edo zabaldu: noiz goratu, noiz
beratu, noiz luzatu, noiz laburtu erakusteko
erreglak dira. Euskerak beraz itzkera añ
bizi, añ gozo, añ apañdu ta ederrak nola
beste edozeñ lengoajek ditu. Baña oriek on-
do dakizkiena nor da?

Orañ eun urte apaiz bat Ernañin omen
zan, bere ustez euskaraz ondo zekiena: urte
asko da apaiz zar bati aditu niola, antziña-
ko apaiz ori aize banoz betea oi zegoela, ta
alabatzen zala, lau boz edo itz oiek, "*áto-
mo, eclipse, hoguera ta horizonte*", iñork
ere euskeraz emango etziozkala. Aizezko
arrotasuna. Apaiz orrek gutxi zekien, ori
baño ez bazekien. A. Larramendik, oriek eta
askoz meago ta gaitzagoak bere dizionarioan

ederki dakartzi. Lausoa edo ela da Atomoa. Argea edo Eclipse, edo argigabea. Sukarra edo suak egitea da Hoguera. Marboilla da Horizonte.

Zenbat ere zan apaiz ori, ez latinez, ez erdaraz, izen egokiagorik euskerazko oiek baño: aidea, geidea, idea, edo kidea ta adis kidea, etzituen berak emango: eta era onetan orien lagun edo antzeko asko ditu euskerak.

Latiñak, *cognatus, proximus, coetaneus, amicus*, dio. Gaztelaniak, *pariente, progimo, coetaneo, amigo*. Baña euskerak: Aidea, Geidea, Kidea, Adiskidea.

Emen bidez asteko egunen izenak, ta urteko ill bakoitzaren izenak, Bizkaian ta emen diran bezala, esan nai ditut. Emen Gipuzkoan dira: Igandea, astelena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, ta larunbata. Bizkaian orren egokiak eztira: Domeka, Astelena, Martitzena, Eguaztena, Egubena, Egubakoitza, edo Barikoa, ta Zapata.

Urteko illen erdiak izen bana, besteak biña ta iruna dute. Lenengoan da Illbeltza. 2: Ostalla. 3: Martxoa edo Martia. 4: Aprilla. 5: Maiatza, Ostaroa, Orrilla. 6: Garagarri-

lla, Bagila, Erearoa. 7: Uztailla, Garilla. 8: Agorrilla, Abustua, Abostoa. 9: Burulla, Iralla, Agorra. 10: Urria, Urrilla, Bildilla. 11: Azaroa, Azilla, Zemendilla. 12: Abendua, Lotazilla.

Urtearen lau denborak dira: Uda berria edo Eralora. 2.^a Uda. 3.^a Udazkena edo Udatzena. 4.^a Negua.

IX

KRISTAU DOTRINAREN ERRETORIKA

Onen gañean A. Larramendi aserrezko dago, eta arrazoi andiarekin, maisuak bezala, puntu bearren au erakusten du. Bere iztegiaren aurrenean edo prologoan, lezio jakiñ eta erregla errazak eman zituen: eta oriek ondo gordetzen badira, gure euskera txit beraa, suabe ta gozoa ertengo da. Euskerak, beste lengoaje askoren aldean, bentaja andiak ta esan diran pribilejioak ditu, ta gramatika justu edo egiñ-egiñaren orazio edo itzaldiaren zortzi parteak txit ederki usatzen ditu, ta bakoitza bere lekuan zuzentzeko erregla seguru ta errazak ditu.

Orregatik añ laster ta añ erraz euskera A. B. Recio batek ikasi zuen: ori bera gero A. M. la Portak, ta A. F. Beliciak ta

beste askok. Onetarako, edo erraz ta ondo ikasteko, itzegiteko ta eskribitzeko, euskerari besteen aldean asko laguntzen dio, besteak bezala, letra asko edo itzen erdiak ez jatea, baizik, libruan dagoen bezala, guzia aoz esateak. Naspilla gabe ta garbiago da onetan euskera: eta izkera obeto egiña edo perfezio geiago duena, ori da. Esan dan guzia euskerak orobat Jaungoikoaren gauza altu andietan, nola emen beko edo bestelako jakiñetan, bere erreglakin osoro ta ederki gordetzen du. Ta ori da, ta ez besterik, egiazko erretorika edo elokuenzia egiñ-egíña bera.

Gaberdi illun batean ta arantzaz alde guztietatik beterikako bide batean bezala, euskara edo euskaldunak zebiltzan: ta A. Larramendi, berari bakarrik zegokion ausardi justuaz, beargai edo irteziñ onetan sartu zan. Gizon baten ezeze, askoren diña zan egitekorik gaitzen onetan, berariazko ta berezkirozko Jaungoikoaren argi ta doai gabe, Aita Manueli berari esan izan diodan bezala, ez berak ta ez bestek ezin gauz onik egingo zuen. Alere bere edadearen lorean guzia benzitu ta guzia egin zuen.

Baña lan gogor onetan A. Manuelek artu

zituen neke latz eta garratzak gure probintzia guziz noblearen gloriagatik bakarrik itzan etziran: gorago ta altuago begiratzen zuten. Esan nai det, beñ ta berriz berak dion bezala, Jaungoikoaren onrari ta animen onari begiratzen ziola, eta ori aren neke guzien azken fiñ eta koroa izan zala: gure Jainkoaren lengoaje bizi bakar au animen salbaziorako landu ta polikitzea: onetan bere alegiñaz alegindu edo esmeratu zan, ta Jaunaren dotrina ta legea bear bezala erakusteko bide zuzen segurua berak agertu ta argitu zuen.

Zeruko maisu edo Jesukristo beraren egiteko jainkozkoa da zeruko bide edo dotrina, fedea ta legea, ez dakitenai ondo erakustea: Jaungoikoa ezagutu ta amatu dezaten argia ta eskua ematea, egiazko ta zeruko erretorikaren erregla ederrakin au egiteko, urrengo abisoak maisu euskaldunak gorde bear ditu.

I da: *Nolako erreberenziaz dotrina artu bear dan.*

Jaungoikoaren itza ondo ikasteko ta erakusteko, esan ta entzun bear da. Bafia nola? Au bear bezala ezagutu, pisatu ta esa-

minatzeko, ni sator itsua naiz, ta besteak nere lagunak: zeruko urregille, lapidario edo artisjakin linzeagoa bear degu: beste Agustin bat edo maisuen dotore, dotoreen maisu ta Eleizako zeruaren Eguzki argi eder, munduko ikasle guzien Erakaslerik jakintsuena: onek iñork ez bezalako lezioak ematen dizkigu, ta Jainkoaren Itzak zenbat balio duen erakusten digu. Ta San Agustiu batek zer dio?

Leku batean Santuak dio, Jainkoaren Itza ta dotrina zeruko arririk ta perlarik preziatuenak ta urrezko zirzilluak bezala dirala. (*Hom. 26 ex 50.*) Beste sermoi batean Jainkoaren Itza ta Jesukristoren Gorputza balio ta estimazio berdin batekoak egiten ditu: ta argatik dio: "*Quanta solitudine*", nola erreparo ta erreberentzia al dan andienaz Jesukristoren Gorputza komulgatzean artzen degun: "*tanta solitudine observamus ne verbum Dei quod nobis erogatur, dum aliud aut cogitamus aut loquimur, de puro corde deperiat*": ala, ta neurri artan bertan Jainkoaren Itza artu, entzun ta gorde bear degula. Ta Kristoren Gorputza errespeto gabe artzen duenak baño, Jainkoaren Itza arreta gabe artzen duenak kulpaga gutxiago ez duela.

II da: *Dotrina erakusteko nola prestatu bear dan*

Ala Bizkaian nola emen, zelo andiko sazerdote jaun ta animen artzai lezio au ondo artzen dutenak dirala badakit. Oien beren dotrina, itzaldi edo sermoiak euskeraz eskribitzen dituzte. Ala fede, nekea da; baña neke guziak amorioak benzitzen du. Itzez esan edo erakatsi nai dutena, kontuz onela eskribitzea askorentzat txit erazko konbeni dan bidea da. Bakoitzak bere errikoakin itzegin oi duen bezala, bere erara lenago paperean ezarri, kontuz etxean nai bezala irakurri, ta gero pulpituan, errespeto andiagoaz, errazago, gogotikago ta bizi-roago, esango du.

Gaztelako Eleiza askotan agindurik dago, ta gizon jakintsuak ere libru edo paperik pulpituan esan ta dotrina erakusten dute. Munduko esamesak oñperatu, ta gure euskaldunak ere au egitea obe litzake: obeto milla bider esan, ta frutu geiago aterako litzake. Onela guziak berdiñ ta guzien nekea arinduko litzake. Onetan nik dakusdana, ta juiziozko persona aditu askok diona da, Jesusen Biotzeko platika edo dotrinak txit ederki irakurten, gustoz ta debozios entzu-

ten dirala. Gauza argiago ta obeagorik oriek baño pulpituán esaten ez dala, askok senti dute ta esan oi dute. Ori guziak txit klaro ta kontentuz aditzen dute: lezioa egiten duenak paperetik errazago irakurten du. Pakez ta soseguz beti dotrina, ta al bait ere ase-rratu gabe, obeto aditu ta biotzetan sartuko da; eta ori euskerarik al dan jakiñen ta kla-ruenean.

Gure fede ta lege santuak, ta Jainkoak naien dituen dotrina-gaiak edo asuntoak. eta enzule edo auditorioak bearren ditue-nak, dirade geiena konfesio ta komunio gaizki egindakoen gañean: eta ori, bear dan esamen konzienziakoaren faltaz edo lotsaz, ta maliziáz pekatuak ez ondo esanaz, edo penitenziak ez kunplituaz, biotzeko damu ta are askoz geiago egiazko proposituaren fal-taz, nola pekatuen bidetik ez aldegiñaz, konfesio ta komunio asko txit gaizki egi-ten diran.

Batzuetan, nola ondo konfesatu ta frutu andiaz komulgatu bear dan: nola Jaunari graziak eman, ta zer denbora artan eskatu bear zaion: zer fede, errespeto ta debozioaz mezatan, Santisimoaren aurrean ta eleize-tan egon bear dan. Besteetan, juramentu, bi-

rau ta maldizio, ezin-ikusi, aserre, gorroto ta etsaiari ez barkatu naiaren gañean, edo gaitz iriztez, edo deseozko pekatuen gañean: ejemplo gaizto edo beatztopa ta eskandalo, tabernako jokoko egoera luze ta edaleen griña itsu, aragizko gusto itsusi, jolas edo ibillera torpe, itzketa edo deseo galduen gañean; eta bakoitzari berea ostu edo gaizki kendu edo artua, aldian puska badere biurtzeko obligazio estua, ta orretara bereala asitzeko bideak.

Dotrinaren puntu txit bearrak dira, umeak Jainkoaren bildur santuan azitzeko legeak: guraso ta familia-buruak oriek ondo zuzentzeko, eta umeen gurasoakiko amorio, obediencia ta errespetoaren oblizioak: doctrina ikasi ta erakustea, konfesatzera bialtzea, lagun onakin ibilli ta goiz etxeratzea, etxeko pakea, ta elkar ondo artu ta ikustea: bere ta etxekoen estura, gaitz edo nekeak pazienziaz ta Jainkoaren izenean ondo eramatea: nola orietan, Jaunaren erregalo ta gorañtzi gozoetan bezala, aren borondatea egitea, Jesus onaren zerurako bide erreal segurua dan: nola gure ditxa guzia, gure borondate ukatu, autsi, ta ez ori, ezpada Jainkoarena egitean dagoen: bakoitzak bere estadu ta bizi-moduko gurutze ta karga amo-

rez egunoro artu ta Kristori gogotik jarraitzean dagoen. Eta au Jesus beraren dotrina, egunoro bearren deguna, ta egunoro erakatsi ta predikatu bear litzakena da.

Onetako gai guziz Jainkozkoa da, San Juan dizipulo amatuak egunoro ta beti aotan biotzean zekarren dotrina: "Jainkoaren umeak elkar ama ezazute": nola karidade onezaz Lege santu guzia kunplitzen dan, ta Jainkoaren alaba estimatuen ta maiteena nola geide edo projimoaren amrio au dan: zuretzat nai dezun guztia zure projimoari zuk egitea: ta zuretzat edo zuri iñork egitea nai ez dezuna, zure geideari ezertan zuk ez egitea, nola Jainkoak eman dizun neurri ta erregla bakar justuena dan. Zure lagun urkoarentzat zuk beti biotz beraa idukitzea, ta animarako ta gorputzerako al dezun on guzia ari egitea, Jainkoaren zeñ marka ederra dan, ta Jaainkoaren Biotzaren antzekoa nola zurea ortik egiten dan.

Azkenik, nola miserikordiazko obra, limosna ta besteak pobrei Jainkoaren izenean edo amorez egitea, zerurako ondasun andiak biribillatzea, ta Jesusen Biotzean gordetzea dan: eta, here Ebanjelioan dion bezala, azken juizioko egunean, miserikor-

diazko obra oietatik, bear bezala egin edo ez egiñetik, onai ta gaiztoai zeruko edo infernuko sententzia Kristok nola emango dien. Orduan, guzientzako Juezaren pagabide edo aranzel berdin justua, miserikordia izango da.

Guzien Errege ta Juez oni nai dakiola, gure probinzia guziz noble onen buruak bere antzera egin, ta miserikordiaren balioa ondo ezagutzeko, bere argiaz zuzendu ta erri jakinenetan animen onerako onelako miserikordiazko etxe onak jasotzera animatzea Oietan pobren gorputzetako alibio ikusten danak, ez du zer ikusi aien animetan egiten dan onarekin. Milla bider orietako miserikordiazko etxe onak jasotzera animatzea. lak baño geiago balio dute.

A Jaun prestuak! "Miserikordia nai det ta ez sakrifizioa", dio guzien Jabeak ta Juezak. Miserikordiaren eske dabil Kristo, ta ez beretzat, baizik zuentzat. (*Matth. 12.*) A, ta zenbat anima galdu miserikordiaz irabazten diran! Orregatik pobreak zuen artean beti, Kristok dionez, izango dituzute. Erri-bestekoai heren libertade eskekoa kenduko etzaie. Baña orien artean zenbat dabilta, ta nork daki nola ta zer legetan? Ez dotri-

narik dakiten, ez ezkonduak ala bestelakoak diran, non da noiz konfesatzen diran: Erriko ta Eleizako buruen kezka, ta oriekin ezin buruatu; zeren batetik bestera igeska dabilzan. Ta zenbat, Sakramentu ta konfesio gabe, gaizki bide orietan illik topatzen dira?

Neke puska da errietan orretarako bide seguruak edo errentak arkitzea. Alere miserikordiak guzia berdintzen du. Erri askotan orañ egiten dan limosnaz, zierto da pobre asko bizi dirala. O Jaunak! Eta zenbat zeruko bendizio ugari eder andiak pobreen orazioetatik zuen animetan, etxe ta errietan ikusiko diran!

Eta ona non dotrina-gai edo asuntorik bearrenak esan ditugun: eta Espiritu Santuak, Trentoko Konzilioan nai dituen gaiak, gaitzetik iges egin ta onari jarraitzeko, oietara datoz. (Ses. 5. c. 2.) Orien berri ematea igande ta jai andietan: "*Diebus saltem Dominicis et Festis solemnibus... cum brevitate, et facilitate etc.*" Askotan, ta laburtxo, ta erraz adituko dan izkeran nai du. Noizean beñ ejenplotxo bat kontatzea, urrezko iltze batekin bezala, dotrina gure euskaldunen biotzetan jositzea da. Pekatuen kontra aserre-aldiren bat iñoiz bear badere, baña guzia pekatarien amorez, guzia pakez, pa-

zientzia ta espirituko suabidadez heterik, San Pablok dionez: "*Argue, obsecra, increpa in omni patientia, et doctrina*" (2. Tim. 4.) "*Instruite in spiritu lenitatis*". (Gen. 6.)

Konfesore ta predikadore jaunak, Maisuak bezala, begien aurrean idukitzea nai nuke, gure jendetxo onak, agitz geienetan birtuteen edertasun ta amorez, pekatuen itsustasun ta gorrotoaz baño, Jainkoagana erakartea obe dala. Lenengo bide seguruago ta prestuago baizik ezta: ta birtuteai jarraituaz, obeto ta errazago orien kontrako pekatuetatik iges egiten da: bide onetatik lasterrago ta frutu geiago anima onetan egingo dute.

Jainkoaren dotrina bear dan fede ta debozioaz esateko, lenagotik ondo pensatu, begiratu, ikusi ta ikasi bear da; eta ori, latin edo gaztelaniarik munduan ez balitz bezala. Au egiten duen euskaldunak, nere kontu, dotrina ondo, eskribitu, ikasi, esan ta adierazoko duela. Latin edo gaztelaniatik euskerara biurtu nai bada, ori ondo biurtzeko edo traduzio onaren legeak gorde bear dira: eta ez itzak berak, ezpada oriek esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu, ta euskeraz nola ondo esango dan kontuz kon sideratu, ta ori eskribitu bear da.

Beste izkerak bezala, gureak ere bere itzaldi egoki txit biziak, berezko ta bera-riazko ederrak ditu. Baña erdarak era ba-tera, ta euskerak bestera. Onek era postpo-sitibo, ta ark prepositiboan. Esan nai du: gaztelaniak beti aurretik dakarrena, euske-rak azkenerontz beti botatzen duela: eta itzak beren lekuan, gaztelaniaren kontra ifintze orretan, euskeraren era eder, aire edo txiste guzia dago. Bestela itzez itz erdara-tik euskarara biurtzen badezu, txit itsusi, doakabe edo moldakaitz irtengo da, eta mu-tillak esan oi dutena: “*comer aviamos echo nosotros: bien que está, Padre*”, eta “*a ti la lengua que no te saque pues*”. Itzez itz biurtzea orra zer dan. Eta edozeñ lengoaje-tan orobat da.

Lenago ondo prestatu ta ere, Jainkoaren itz santua bear dan errespetoaz artzean la-na dago. Ciceron tristea, lurreko onragatik, bere erretorika guziaz, zeñ ere zan, ta lena-go alegiñ guziaz prestatu zeñ ere zegoen, alere Erromako Jaunen aurrean itzaldia asi-tzeko, utsegiteko bildurrak beti, berak dio-nez, artzen zuen. Jaungoikoaren lege ta do-trina, Ciceron-en egitekoen aldean, zeñ gau-za mea, preziatua ta andia dan, edozeñek dakus. Latin usia puska bat duen gizon jui-

ziozkorik nor da, erdaraz edo euskeraz sermoi bat irakurri ta beste gabe, latiñez pulpitan predikatuko duenik? Itzoro galdu ta trabukatuko litzake. Bada euskerazko erretorika berbera da, ta erregla ta lege berdiñak dira. Probetxoai erakasi bear zaien Jaunaren dotrina, ez banoan, ezpada bene-ratio guziaz artzeko gauza da.

III. — *Dotrina galdetzeko ta esateko modua.*

Dotrinaren puntutxo oiek eskribitzen na-goela, ill berri triste bat etorri da, edo sazerdote J. D. Ignazio Iturbe, igaro dan egu-nean nola uste gabe ta bat-batetan ill-otza gelditu dan: Jainkoak bere glorian duela. Onek, Billa-erreal-ko Bikario zala, jai-egun guzietan dotrina egin edo esplikatu oi zuen, ta txit atsegin andiaz askotan aditu izan nuen. Onen jarduera santu edo ejerzizio era guzietara ederra ta erraza zan, eta onela egiten zuen.

Eleizan zeuden guziak berarekin batean belauniko jarri, soseguz boz altuan ziñatu, kontrizioko aktua egin, ta entzunleak eser-tzen ziran: era onetan bera pulpitan zutik zegoela, eskolan bezala ta paperetik, karti-

llako orazioak berak klaru esan, ta tonu ar-
tan esanaz, guziak erantzun edo esaten zi-
tuzten: Aita G., Abe M., Salbea, Kredo ta
Artikuloak, Legeko ta Eleizako Mandamen-
tu, Sakramentu ta miseriakordiazko obrak.
Zer jarduera edo praktika ederrago ta bea-
rrogarik oriek guziok ta kontriziozko aktua
egitea baño? Orrekin lotsa ta bildur gabe
guziak berdin: txiki ta andi, gazte ta zar,
gizon ta andreak, betiko esanaz, erdi lotan
bazeuden ere, nai ta nai ez bezala, guzia
ondo ziekiten.

Ejercicio eder onen ondoren, dotrinaren
puntu berariazko bat berak azaltzen edo es-
plikatzen zuen: ez luze ta ez labur, bere
neurri onean; baña bere euskera klaru, ego-
ki ta errikoai akomodatu ta zegokienean:
texto edo latiniak batere gabe, aserre edo in-
kietaziorik alerik gabe. Ala auditorio guzia
aok txabalik, txit gustoz ta debozioz egon
oi zan. Au berau egiten dute beste Artzai
onak badira. Ojala guziak berdin onela be-
ren eleizetan egiten badute. Oriek jakinde
edo estudio andirik ez idukiarren, marabilla
aundiak orien paperetik ikasiko lirake.

IV. — *Dotrina galdetzeko modua.*

Espiritu Santu, egun oietan etorri zanak, gure biotzak emen argitu ta bere amorez zuzen ditzala. Puntu onetan, nola Euskal-errietan era edo manera jakiñik ta guzientzat berdiñik orañ artean izan eztan, egokiro itzegitea erraz ezta. Gure itzaldi ta izkera geienetan uts egiten degu: ta orañgoa ezta. San Agustin batek zion: "*Multa improprie loquimur, pauca proprie; intelligitur tamen quid velimus*". Esan nai du, gauza asko ez-egokiro ta gutxi egokiro, ondo ta bear bezala, esaten ditugula: alere elkar edo zer esan nai degun aditzen degula. Jakintasan bere parerik munduan ikusi etzuenak, edo Agustin batek añ umilkiro ta ederkiro au badio, besteok zer esan dezakegu?

Animen kargudun edo dotrinako esaminadoreai lastima andia diet: eta gure jende jakin-ez gaxoakin pazienza zabala bear da, eta au baño ere prudenzia andiagoa nai da, pobretxoai txit beren erara galdetu ta bade-re, bearren dan dotrina ondo aditzen ñuten ikusteko, edo dakitena nolerebait ateratzeko. Ondotxo bada, ta suabero artu ta gauzarik errazen ta jakiñenetatik galdetzen asi bear da; orrela animatu, ta lasterrago ta zu-

zenago ikasi dutena erantzungo edo esango dute.

Bestela gogorki estu edo txorrotzegi artzen badira, lotsatu, bildurtu ta ebakiko dira ta gauz onik egingo eztute. Ziekiten dotrina-puska bera ere, nastu ta oker edo gaizki esango dute; ta bear dana dakiten edo ez, orduan ta orrela esaminadoreak juiziorik ezin egin dezake. Eskusatu, bada, arren, Jaunak, eta geienez alde batera jende itsu gaxoai ondo ez datozkien galde edo preguntak utzi: seguru ez dakizkitez, ta orien premia edo jakin bearrik ez dute. Emen era batera guziaz dotrina galdetzeko erregla laburtxo bat edo ejemplo falta da.

Kura jaun guzien biotzak Espiritu Santuak argitu, berotu ta giatu ditzala, beren ejemplo ta dotrinarekin anima asko salbatzeko. Amen.

Onen ondoren liburtxo bi laster aterako dira. Bata, "A. S. Ignazio-ren Ejerzizio-en gañean afektoak, beren ejemplo ta dotrinakin".

Bestea: "Ondo iltzen ikasteko ta ondo iltzen laguntzeko ejerzizioak".

Azkenik, Jainkoak nai badu, A. Astete-

-ren Dotrina Kristiana edo Kristau Dotrina, gure euskera garbian; baña emen usatzen dan izkerarik jakiñenean; uste ta alegin guziaz ondo limaturik, eta Probintziako ta Bizkaiko gure euskaldun onenak, ta Teolojiako maisu askok urrezko liburutxo oni dagokion estimazioak, txit ondo ta kontuz ikusi ta begiraturik.

Aita Mendiburu-ren zelo andiak Nafarroako erara libru eder probetxuzko asko atera dituen bezala, Jainkoaren ontasunari eskatzen diot, Bizkaiko biotz nobleren bati ango era ta dialektoan zeruko dotrina ta ejempioen libruak ateratzeko, arren argi, zeloz ta gogoz bete bat eman diozala. Alper alperrik leiatzea da: animen onerako, Bizkaiko, Nafarroako ta Gipuzkoako iru dialektoetan eskribitzea, guztiz premiazko ta gauza txit bearra da. Gure izkera, beste bien erdikoa bezala, Nafarroan, baita Bizkaian ere, geiena aditzen da. Baña ez Nafarrak Bizkaikoa, ta ez Bizkaitarrak Nafarrena aditzen dute: ta bata besteagandik urruti ta bakoitza bere bidetik dabill. Jainkoak guziak zuzen ditza-la bere gloriarako. Amen.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.º Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.

17. *Antonio M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUN!
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (Bizitza ta ta bat bateko bertsoak).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.^a Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi senarrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *Agustin Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.

IMPRESO EN ESPAÑA